

# ttiipi-ttapa

299. zenbakia • 2001ko apirilak 5 • XXI. urtea



## 24 Kirola: Retegi VII debuta egin du profesionalean

Martxoaren 24an egin zuen debuta profesionalean Gorka Retegi atzelari beratarrak. Retegi VIII Iban Etxanizekin egin zuen bikotea eta aisa irabazi zieten Haritz eta Alberdi IIIri, 22 eta 8. Geroztik, asteburu honetan Josu Baleztena eratsundarrak ere egin du debuta Asperekin. Pilota osasuntsu dabil gure inguruan.

## 4 Erreportaia: ttiipi-ttapak itxura berria 300. alean

Esku artean duzun aldizkari da diseinu honekin argitaratuko den azkena. 300. zenbakiaren aitzakian, itxura berriarekin eta kolore gehiagorekin etorriko da. Hori bai, bertako berriak biltzen segituko dugu, beti bezala

## 6 Gaurkotasuneko Gaia: Bermeo, Leitza eta Sarako euskaltzaleak

Joan den urtean Bermeon eta aurtan Leitza bildu dira, heldu deanean Saran elkartzeko asmoarekin. Hiru herrietako euskaltzaileen iritzia bildu dugu, topaketa hauei buruz.

**TTIPI TXARTELA:** Orain txartela izateak abantaila gehiago ditu. Erosi zeurea eta erabili.



# Xorroxin irratia orain Lesakan ere

Duela bi urte Lesakako udal lizentzia eskuratu eta Udalak berak emandako lokalean moldaketa lanak egin ondotik, abudo zabalduko da Xorroxin Irratiaren estudio berria. Nerea Altzuri, azken lau urteotan Xorroxin ari den eta TTIPI-TTAPA TELEBIS-TAKO aurkezle den kazetari aranztarra izanen da estudio berri honen arduraduna. Bere ustez, programazioan aldaketa handirik izanen ez bada ere, Bortziritako jendeak partehartze xuxenagoa izanen du Xorroxin eta hartumana estuagoa izanen da.

## Bigarren egoitza eta frekuentzia berria zabalduko ditu egunotan Eskriboneako (Alondiga) bigarren solairuan

Izan ere, irratia are gehiago irekia egon bada, «orain

bigarren ate bat ireki dugu. Edozein ideia edo proiektu buruan izan eta irratian esperientzia hartu nahi duenarentzat hor izanen gara, Lesakan ere. Eskualde osoko irratia garelako gehiago somatuko da».

3



# ORDOKI

## ALTZARIAK

### ERAKUSKETA

Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

### SALTOKIA

Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948  
637780

NA-31780 **LESAKA**

### Estilo ugariako mobleak

Larunbat goiz eta arratsaldez irekia

# A

**armairu enpotratuen  
erakusketa  
Bittirian**



## ZILO BOLAK EGITEKO PLASTIKOA

# SILOTITE

- ➔ Belarra ziloratzeko erabiltzen den plastikoetan liderrak
- ➔ Koloreak: xuria **marroia** **berdea** eta beltza. Hiru kapako plastikoa
- ➔ 14 urteko esperientzia
- ➔ Kalidade eta prezio arteko erlaziorik hobereana



**GIZAKIAK BETIDANIK JAKIN  
DU SILOTITEREKIN  
BILTZEA DELA  
KONTSERBATZEKO  
MODURIK  
HOBERENA**



**AROZ - BERRI, S.A.**

NEKAZAL TRESNERIA

N-121-B errepeidea, 54. km.a • Tel: 948 581 021 - 948 580 258 • Fax: 948452103 • 31730 IRURITA

## DATUAK.....

❖ Nerea Altzuri 24 urteko kazetari aranztarra izanen da Xorroxin Irratiak Lesakan berehala irekiko duen estudioaren arduraduna.

❖ 1997an hasi zen praktikak egiten Xorroxinen eta urte bat beranduago langile gisara. Euskadi Irratian ere aritu zen sei hilabetez praktiketan eta Ttipi-ttapa Telebistako berri saioaren aurkezlea da.

❖ «Goiz Argi» saioa aurkezten du goizero, 7,30etatik 9,30etara Elizondotik. Orain, saio bera eginen du Lesakatik. Gainera, astelehenero Hondarribiako artisau batekin programa eginen du.

✍ **Nerea ALTZURI** *Xorroxin Irratiko esataria*

## "Lesakako estudioak irratian parte hartzeko bertze ate bat irekiko du"

### ZEIN BERRIKUNTZA EKARRIKO DIZKIO XORROXIN IRRATIARI LESAKAKO ESTUDIO BERRIAK?

Xorroxinen programazioa ez da aldatuko. «Goiz Argi» saioa Elizondotik egin beharrean Lesakatik egingen dut. Beharbada, programazioan izanen den aldaketa bakarra astelehenetan Hondarribiako artisau batekin egin nahi dugun saioa da. Orduz orduko informatiboetan telefono bidez elkartuko ditugu Lesaka eta Elizondo, teknikoki posible baita. Bi berriemaileak elkarren ondoan egon beharrean, telefono bidezko harremana izanen dugu, baita bertze saioetan ere. Elkar ez ikusterakoan hotzagoa gelditzen da, baina posible da, bertze irrati-tan ere egiten baitute.

### BORTZIRIETAN DUZUEN ENTZULEGOA SENDOTZEKO TRESNA BALIAGARRIA IZANEN DA?

Duela lauzpabortz urte hasi zen Xorroxin aditzen Bortzirietan eta somatzen dugu entzulego bat ere badela. Lehiaketetan parte hartzen duen jendeak hori erakusten du. Bidean dauden garraiolariak eta etxeko andre batzuk entzuten digute, ikusterakoan erraten didatela-koz, "egunero aditzen zaitut". Lantoki ba-



«Irratia aberastu egingen da eta gehiago nabarituko da eskualde osokoa dela».

ztuetan ere aditzen da. Beti erran ohi da Xorroxin Baztango Irratia dela, baina Malerrekan eta Bortzirietan entzule aunitz ditugu. Lesakan estudioa jar-tzeak harreman hori es-tutzeko eta kolabora-tzaile berriak lortzeko baliagarria izaten ahal dela uste dugu. Orain arte, Bortzirietako jen-dearekin genuen harre-mana telefono bidezkoa

zen, baina orain estu-diotik beretik egiten ahal da. Lesakarrek bertze frekuentzia batean ere aditu ahal izanen dute Xorroxin, 88.0an.

### BERAZ, BORTZIRIETAKO JENDEAREKIN HARREMAN ESTUAGOA LORTUKO DUZUE...

Betidanik, Baztan, Malerreka eta Bortzirie-tako irratia izan gara, baina estudioa Lesakan paratuta eta dagoen le-kuan egonik, nik badut esperantza hori. Agian jendeak ez du gehiago deituko, baina gehiago agertuko da estudioira eta kolaboratzaile lane-

an izateko prest egonen dira. Somatu ditugu mu-sika saioa egin nahi du-tenak, gazte saioa egin nahi dutenak. Irratia aberastu egingen da eta gehiago nabarituko da eskualde osoko irratia dela.

### PARTE HARTZEKO ATEAK ZABALIK DITUZUE, HORTAZ...

Xorroxinen atea be-ti irekia egon da gu-zientzat, eta orain biga-rren ate bat ireki dugu. Edozein ideia edo proiektu buruan izan eta irrati-tan esperientzia har-tu nahi duenarentzat hor gaude, Lesakan ere.

► *“Xorroxin betidanik eskualde osoko irratia izan da, baina Lesakako estudioarekin Bortzirietako jendearekin harremana estuagoa izanen da”*

TESTUA:

AITOR AROTZENA

ARGAZKIA:

KARMELE TOLOSA





**Eskuartearen duzun aldizkari hau da diseinu honekin argitaratuko den azkena. Hurrengo aldizkariak 300. zenbakia egingen du, eta aitzakia aprobetxatuz, jantzi berriarekin agertuko da. Bistan denez, aldaketa agerikoa da azalean, eta barrenean ere berehala somatuko duzu. Halere, mamiaren funtsa betikoa izanen da: hurbileko informazioa.**

Argazkian diseinu berriaren proba bat azalari dagokiona

300. ZENBAKIA DELA BALIATUZ

# Apirilaren 19an TTIPI-TTAPA itxuraberritua

**n**ork erran behar zuen duela 21 urte, Beran sortu zen euskarazko aldizkari xume harek ibilbide hau guziaz egingen zuenik. Bainan hara nola diren gauzak. Poliki-poliki, garai berrietara egokitzeko

ahaleginari esker, Lapurdiko hegoalde eta Nafarroako ipar-mendebaldeko eremu honetan bertze inongo komunikabide idatzik sekula bete ez duen funtzioa betetzen du gaur egun TTIPI-TTAPA aldizkariak. Hemengo kontu eta gertaearen berri ematen digu, he-

mengoan dugun hizkuntzan: euskaraz.

**Gustoko edukia, hobe modu gustagarrian eskainia bada**

Bi alderdi hauek garrantzi handikoak dira: aldizkariaren mamia jendearen interesekoa izatea nahitaezko

baldintza da, bainan baita ere mamia modu gustagarrian plantatzea.

Eta azken premia horri erantzuteko ahalegina da 300. zenbakiak ekarriko duena. Ahaleginaren emaitza zuen gustukoa den jakiteko, ordea, guti falta da: apirilaren 19an ikusiko duzu. ■

## ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ALDIZKARIARENDAKO EMAN DITUZTEN DIRULAGUNTZAK (Pezetetan)

UDALAK	1997		1998		1999		2000	
	Eskatu	Hartu	Eskatu	Hartu	Eskatu	Hartu	Eskatu	Hartu
Arano	0	0	70.000	70.000	70.000	67.277	68.959	68.959
Areso	140.777	20.000	141.505	0	145.766	35.000	149.410	0
Baztan	3.123.393	500.000	3.139.545	525.000	3.234.090	550.000	3.308.374	560.000
Bortziriak <sup>(1)</sup>	3.589.040	3.589.030	3.610.500	3.589.030	3.716.240	3.716.240	3.809.146	3.809.146
Goizueta	400.673	250.000	402.745	300.000	414.873	414.873	425.245	425.245
Leitza	1.325.779	900.000	1.332.635	900.000	1.372.766	1.033.500	1.407.085	1.042.500
Malerreka <sup>(2)</sup>	2.300.389	1.000.000	2.312.285	1.229.904	2.460.389	1.230.000	2.441.465	1.220.732
Sara	-	25.000	-	37.500	-	25.000	-	50.728
Urdazubi	216.580	50.000	217.700	50.000	224.256	50.000	229.862	50.000
Zugarramurdi	140.777	0	141.505	0	145.767	10.000	149.410	10.000
<b>Nafarroako Gobernua</b>	<b>8.200.000</b>	<b>8.200.000</b>	<b>7.300.000</b>	<b>8.200.000</b>	<b>8.200.000</b>	<b>7.138.645</b>	<b>8.200.000</b>	<b>7.300.000</b>

<sup>(1)</sup> Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak emandakoa

<sup>(2)</sup> Malerreko Zerbitzu Mankomunitateak emandakoa

### Areso, Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdi urtean 2.000 Pta.ko harpidetza

“Etxe bat TTIPI-TTAPA bat, eta gainera debalde”. Horixe da azken hamabi urteotako helburua. Jakina, hori posible izateko urtero dirulaguntzak eskatu dira Udalguzietan, baina zoritxarrez, toki batzuetan ematen den laguntzarekin hori ez da inondik ere posible. Arrazoi horregatik, udalak pagatzen ez duen dirua jendearengana eskatzea erabaki da orain.

#### Hamarretik zortzi ordaintzeko prest

Izan ere, joan den urtean hasi ginen goian aipatu diren herrietako harpidedunei banan-bana deitzen, egoera zein den esplikatzeko, eta urteko 2.000 Pta.ko saria eskatzen. Erantzuna, generalean, arras ona da. Jakina, herri batetik bertzerara beti izaten da diferentziaren bat, baina gainerakoan, jendeak ulertzen du bertze erremedioren ez dagoela, eta ez du batere arazorik datuak eman eta abonamendua bankutik egiteko. Azken hilabeteotan TTIPI-TTAPAKo lankide bat ari da Baztango etxeetara deika.

#### Zugarramurdi Akelarre elkarteak ordaintzen du

Zugarramurdi kasua berexia da. Herriko Etxeak ematen dituen 10.000 Ptekin, herriko aldizkariak balio dutenaren % 3a ordaintzen da doi-doi. Bertze % 3a Akelarre elkarteak ordaintzea erabaki zuen iaz.

## TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA ZENBAKITAN

### Harpidedunak urtez-urte



### Urteko produkzioa 2001

Urtean ..... **24 aldizkari**  
 Aldian ..... **7.100 ale**  
 Urte osoan ..... **168.000 ale**  
 Aurrekontua **28.222.422 Pta.**

### Harpidedunak eskualdeka (01/03/26)

<b>Baztan</b>	<b>1.505</b> harpidedun	7.741 bizilagun
<small>Baztango 15 herriak</small>		
<b>Bortziriak</b>	<b>2.113</b> harpidedun	8.369 bizilagun
<small>Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesaka</small>		
<b>Leitzaldeak</b>	<b>1.013</b> harpidedun	4.397 bizilagun
<small>Arano, Areso Goizueta eta Leitza</small>		
<b>Malerreka</b>	<b>1.205</b> harpidedun	5.229 bizilagun
<small>Malerrekan kontatutako Basaburu, Bertizarana eta Sunbilla.</small>		
<b>Urdazubi</b>	<b>674</b> harpidedun	6.645 bizilagun
<small>Sara, Sempere, Urdazubi eta Zugarramurdi</small>		
<b>Bertzetan</b>	<b>590</b> harpidedun	
<small>Eskualdetik kanpo (Euskal Herria, Europa, Amerika...)</small>		

### Jakin dezazun

- Badakizu zenbat kosta den eskuartearen duzun aldizkari hau?  
**Gastu guztiak kontatuta, aldizkari bakoitza 170 Pezeta edo 6,8 Libera kosta da.**
- Urte batean etxean hartzen dituzun aldizkari guztiak, zenbat balio dute?  
**Urtean 24 aldizkari direla kontuan hartuta, 4.080 Pezeta edo 161 Libera.**
- Udal bakoitzak iaz eman zuen dirulaguntzarekin, herri horretan banatzen diren aldizkari bakoitzak balio duenatik zenbat ordaindu zuen udal dirulaguntzarekin?

Oharrak:

- Aldizkari bakoitzaren balioa: 170 Pta. / 6,8 Libera**
- Gehienez ere, balio horren % 40,7 ordaintzea eskatu zitzaion**

Aranoko Udala	% 40,7	Aresoko Udala	% 0
Baztan Balleko Udala	% 6,8	Bortzirietako Mankomunidadea	% 40,7
Goizuetako Udala	% 40,7	Leitzako Udala	% 30,2
Malerrekako Mankomunitatea	% 20,3	Sarako Herriko Etxea	% 40,7
Urdazubiko Udala	% 8,8	Zugarramurdi Herriko Etxea	% 2,7

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85  
FRANKEO ITUNDUA: 34/79  
TIRADA: 7.100 ALE

**Helbidea:**

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
Herriko Etxeko Plaza, 1  
E-31780 BERA (Nafarroa)  
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88  
Faxa: (+34) 948 63 12 91

**Internet:**

<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>

**e-mail:**

ttipi-ttapa@topagunea.com

**Jabea:** TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.  
**Presidentea:** Pello Apezetxea.  
**Kudeatzailea:** Joxemanuel Iri-goien. **Zuzendaria:** Aitor Arotzena. **Publizitatea:** Kulturkari, S.L. **Administrazioa:** Amaia Goia. **Erredakzioa:** Aitor Arotzena, Asier Gogortza. **Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Lorena Galarregi, Pablo Mendiburu, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltorena, Aitor Arozena, Asier Gogortza. **Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Belarra... **Inprimategia:** Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkar-tea, Bortzirietako Euskara Man-komunitatea, Malerrekako Zer-bitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkar-tea...

**Harpidetza sariak:**

Hego Euskal Herria . . . .2.400 Pta.  
Ipar Euskal Herria . . . .180 Libera  
Europa . . . .4.600 Pta./ 180 Libera  
Amerika . . . .16.500 Pta.  
Baztan, Urdazubi, Malerreka,  
Leitza eta Areso . . . .2.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako Gobernaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

## Leitza, Sara eta Bermeoren arteko topaketak

**Hiru herriek elkar ezagutzea da helburua, baina maila pertsonalean**



Jaione ASTIBIA  
LEITZA

Duela bi asteburu izan zen Leitza hiru herrien arteko bigarren topaketa. Denetara 230 bat lagun bildu ginen eta ikaragarriko umorea sortu zen hasiera-hasieratik. Gainera elkarrekin nahasita egon ginen, eta hori zen helburua. UEMA bidez sortu zen ideia hau, Euskal Herriko hiru herri euskaldun hartzea, baina hiru errealitate oso desberdinekoak: Sara, Lapurdikoa, eta nekazal girokoa. Leitza, Nafarroakoa, erdi-nekazal erdi-industria girokoa. Eta Bermeo, berriz, Bizkaiaikoa eta arrantzale girokoa. Gainera UEMAN dagoen herririk handiena da, 18.000 bizilagun inguru ditu. Hiru herriek elkar-ezagutzea da topaketa hauen helburua, bainanez instituzionalki, maila pertsonalean baizik. Nik uste dut lortu dela, iaz ez genuen hainbeste konektatu elkarrekin, baina aurten diferentzia handia izandu da. Gainera, ekitaldi guztiak antolatzeko herri guztietako jendeak parte hartu du. Leitziatik talde desberdinetako 125 lagunek parte hartu du antolakuntzan zertan edo hartan, eta dena musutruk.

**Hasieran zaila da elkar konprenitzea, batez ere bermeotarrekin**



Maider OLASO  
SARA

Saratik 20 bat lagun joan ginen Leitza. Aurten bigarren urtea dugu eta hor ginenak denak Bermeora joanak ginen iaz. Nik ateman dut iaz baino errexikiago mintzatu garela elkarrekin. Izan ere Bermeo Leitza baino zabala goa da eta Leitza tikiagoa izanez gero gehiago nahasi gara elkarrekin. Hiru euskalkiak arras diferentak dira eta hasieran zaila da elkar konprenitzea, batez ere bermeotarrekin. Bereziki haien artean ari direlarik sartzen zara elkarriketan eta ez da batere goxo. Hala ere ohartzen gara horretaz eta ulertzen ez dugularik galdetzen diogu batak bertzeari eta eginahalak egiten ditugu euskara batutik hartzeko ulertzen ez ditugun hitzak. Dena den arras interesgarria da bakoitzaren hizkuntza aberasteko. Xuxenbidez heldu den urtean Saran eginen da hiru herrien arteko elkarretaratzea. Jadanik Leitza egon garenak denak motibatuak gara, baina beti berdina mugitzen gara eta entseiatu behar dugu saratarrak gehiago motibatzen, ainitz ez baita ausartzen euskaraz mintzaten.

**Herri txikietan jendea gehiago inplikatzeko da horrelakoetan**

Miren URIONDO  
BERMEO

Bermeotik 25 lagun joan ginen larunbatean eta igandean beste 60, abesbatza eta herriko jendea kontuan hartuta. Jendea pozik egon zen, giro oso ederra egon zela aipatzen zuten, eta gure helburuak bete direla: elkar ezagutzea, euskararen erabilera indartzea eta euskalki desberdinak erabiltzea lortu baitugu. Elkarregaz hasieran baino errexago ulertzen dugu orain. Guk ez dugu batua erabili, Bermeoko euskara erabili dugu, beraiek gure euskara entzun zezaten. Egin doguzan beste topaketetan bermeotarrak euren artean ibiltzen ziren eta saratarrak eta leitziarrak berdin. Baina oraingoan nahastu gara eta elkarregaz ibili gara, arratsaldean jolasten, gau guzian parranda itzela eginez... Bermeo da hiru herrietan handiena, eta hori jendearen izaeran ere nabaritzen da. Herri txikietan jendea gehiago inplikatzeko da. Bermeon kultur taldeak eta bai, baina herriko jende asko enteratu ere ez zen egingo. Eskuorrietan aipamen berezi bat egin diogu Gotzon Garitaonaindiari. Berak Bermeon hainbat urte egin ebazan apaiz duela 20 urte eta euskaltzaletasuna eta aber-tzaletasuna bultzatu zituen.



ttipi-ttapa fundazioak Europako Batzordearen dirulaguntza jaso du

# ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

**LESAKA:**

• Asteleheneetik asteazkenera 9-13tara eta 15-19etara  
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara  
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

**BURLATA:**

ARTEKARI, S.L., © 948133328•133346. Faxa: 948133713  
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☛ Langile Autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitopenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☛ Bideragarritasun planak



## IRAKURLEAK MINTZO

**2001-02 ikasturteko aurrematrikulazio kanpainaren balorazioa**

Gaur egunean eskura ditugun datuekin, Nafarroako ikastetxe publikoetan D ereduaren egindako aurrematrikulazioaz balorazio positiboa bertzerik ezin dugu egin. Ikastetxe gehienetan portzentaik mantendu egin dira, joan den urtekoarekin alderatuz eta bertze batzuetan handitu egin da kopurua. Honela, Axularren joan den urteko 18tik 30era igo da.

Administratziotik traba aunitz jarri ditu. Duela hiru urteko elebitasunaren aldeko kanpainatik, eskola publikoaren aldeko kanpaina oso deskafeinatura pasatu da, D eredua erabat baztertera utzita. Euskarak eta euskarazko irakaskuntzak Nafarroako Gobernutik eta UPNtik sofritu dituen hankatrabak guzietan aurre egin die. Hankatrabak jaso ditu, eraberean, politikari eta iritzi-sortzaile batzuen eskutik, historia, soziolinguistikaz, hezkuntzaz eta liburuaren diseinuaz profesionalak beraien baino gehiago dakitenak.

Guzti horri eta horiei aurre egingez, gizarteak bertze lezio bat eman die eta elebitasunaren aldeko apostua egin du. Giza-baloreetan, pluraltasunean eta kultur integrazioaren alde egiten duen irakaskuntza eredu baten alde

egin dute. Pertsona aunitzen lanari esker eta aita eta ama aunitzen erabakiari esker, Nafarroan daukagun eta belaunaldi aunitzen izanen dugun irakaskuntza eredu bat.

SORTZEN.

**OHARRA:**

*Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapa**k bere esku izanen du horretarako eskubidea. Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez dituzten iritzirik.*

**Euroari buruzko tailerrak Lesakan erdara hutsez**

Lesakan euroari buruzko tailerrak antolatu dituzte Nafarroako Kutxak eta Nafarroako Gobernuak. Hala, gutuna eta izen-emate orria erdara hutsean bidali dituzte Bortzirietako establezimendu komertzial eta PYMEetara. Gainera, tailer horiek euskaraz egiteko aukerarik ez dago, sobera ere euskaldunik ez dagoelako langintza horretarako.

Ezaguna da Nafarroako Gobernu 372/2000 Dekretua onartu eta berehala hasi dela euskara bere testu, inprimaki eta abarretatik ezabatzen. Nafarroako Kutxaren kasuan ere, fusioa gertatuz geroztik kostata lortutako emaitzak desagertu dira.

Gutun honen bitartez bi erakunde hauek euskararekin duten jarrera salatu eta herritarrek beren hizkuntza eskubideak errespetatuak izan daitezkeen eskatu nahi dugu.

Arantzan, 2001eko martxoaren 29an

JOSE RAMON AMOROS OSKOZ  
BORTZIRIETAKO EUSKARA  
MANKOMUNIDADEKO LEHENDAKARIA

**Bixente ta Tere**

Berritz ere gurekin zaren gaixo Tere Gure zoriona da zurearen pare gertaera larrian izatu baitzare zuk jasan egun txarrez orroituko gare dakigun etzinelan hobedun batera.

Ageri den bezala giro trixte huntan xapeldunak dabilta denak zainen puntan normahi arrastatuz edozoin lekutan zorigaitzez maizenik ez buru ez buztan Euskal Herri osoa eman nahiz sutan.

Ahulenen aldean gaur izanik ere Indartsuen beldurrik ez dugu batera gure lana bakotzak egitean bere Herrian Herrikoak har dezan botere ditu ohoratuko Bixente ta Tere.

Zainduz odol hotzean bihotza beroa atzokoez orroituz begira geroa Euskaldunak garelara erran gabe doa Begiak zabal eta muturik agoa berreskura dezagun euskal natioa.

MANEX BERGARA

**Maderas GOMEN**

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ☎ 948 580 645

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

**ANZABAL**  
AGENTZIA**Zurich Aseguruak**

- Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak

**Lan aholkularitza**

- Nomina eta Aseguru Sozialak

**Aholkularitza fiskala**

- Errenta Deklarazioak, IVA...

**Inmobiliaria**

- Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua

**Gestoria**

- Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tínoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO

**KULTURKARI****Inprenta lanak egiten ditugu**

- Kartelak
- Boletoak
- Faktura taloak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean egiten dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

☎ 948 63 11 88



Diario Vasco 01eko martxoak 23

«Ez dut etorkizuna batere argia ikusten, aziendak baitziren nire negozioa eta orain dena hondatu da. Balle guzian pentsu bera ematen genuen, beraz, Baztanen behi ero gehiago agertuko direla iduritzen zait».

**Fco Javier MINDEGIA**  
Arraizko abeltzaina  
Diario Vasco 01-03-23

«Etxetik Plazara egitasmoaren helburua da, inguru honetan bizi den jende gehiena euskalduna izanik, jende horri alfabetatzeko bidea

edo gogoia irekitzea. Lehengo eta oraingo helburuak berberak dira».

**Beñardo GOIETXE**  
Etxetik Plazara aldizkariko kidea  
Egunkaria 01-03-23

«Disko bikoitza egiteko aukera bazegoen, baina azkenean nahiago izan dugu bi disko egin. Oraingo honek abesti akustikoagoak biltzen ditu eta hurrengoak elektrikoagoak jasoko ditu».

**Juan Luis Perez PETTI**  
Berako abeslaria  
Egunkaria 01-03-21

◆ **Zenbat urtez aritu zara kartera lanean?**

◆ Nire izenean 30 urte eta bertze hamar senarrari laguntzen.

◆ **Beti Legasan aritu zara edo bertze herriren batean ere bai?**

◆ Beti Legasan, ederki ezagutzen dut herri eta baserri berri. Orain, halere, jende berria etorri da.

◆ **Urte hauetako oroitzapenik onena?**

◆ Jendearekin izandako tratua. Orain Korreosek omenaldia eskainiko dit.

◆ **Eta txarrena?**

◆ Bronkak aditzea, karta berandu edo gaizki ailegatu direla eta.

◆ **Postarientzat, zein da lan gehien egiten duzun urte sasoa?**

◆ Gehiena hauteskundeak direnean, botoak, propaganda... Eguberrietan ere nabaritzen da.

◆ **Jubilatu eta gero, zer izan da egin duzun lehendabiziko gauza?**

◆ Etxeko garbitasuna. Baratzean aritzea ere aunitz gustatzen zait. Emakumeendako beti bada lana etxean.

◆ **Eta astia duzunez, zer gustatuko litzazuke egitea?**

◆ Deus berezirik ez. Urtero Fiteroko balneariora joaten naiz eta orain ere joanen naiz.

◆ **Karteroek beti deitzen dute bi aldiz?**

◆ Bigarreanean erantzuten ez badu, hurrengo egunean itzuli edo atean utzi.

◆ **Orain kartak ordenadoren ere bialtzen hasiak dira...**

◆ Hori ere badugu? Ez nuen deus ere aditua.

◆ **Partikularren kartak edo bankukoak?**

◆ Orain gehiena bankua, telefonoa eta argia izaten da. Partikularrak telefonoz aritzen dira.

◆ **Berriz lanean hasi behar bazenu, kartera lana aukeratuko zenuke?**

◆ Bai, dudarik gabe.



**Bienvenida DOMECH**

Postari erretiratua  
**LEGASA**



**PAGOLA**  
**TXISTORRAREN**  
**IZENA**

© 948 630 054  
Alzateko Plaza, 2  
**BERA**

**Lanchas**

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 948630735

**ZALAIN**  
JATETXEA

Zalain Auzoa  
© 948631106  
**BERA**

**Boda eta banketeak ematen dira**

**PIKABEA**  
Molinero drogerian galdetu

*pinturak*

**Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu**

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

lzpaz 8 • © 948 630240 - 948 631495 • **BERA**

*Haritza*

**belardenda**  
Mediku naturista kontsulta  
Masajista

Legia I, behea • BERA • © 948 630652

**EKAITZA**  
Hostala • Kafetegia  
Gelak TB eta bainuarekin

Terraza eta plater konbinatuak

Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**



## HEZKUNTZA

# Eskualdeko ikasle berri gehienak D ereduan aurrematrikulatu dira

Hiru urteko 191 ikasleetatik 170ek euskara hutsezko ereduan eman dute izena

### TTIPI-TTAPA

2001-2002 ikasturtean eskualdeko ikastetxeetan lehen aldiz hasiko diren 191 haurretatik 170 D ereduan (euskara hutsez) aurrematrikulatu dira. Bertze 14 ikasle B ereduan hasiko dira (erdia euskaraz eta erdia gazteleraz), gehienak Berako Jesusen Bihotza ikastetxeetan lehen aldiz hasiko diren 191 haurretatik 170 D ereduan (euskara hutsez) aurrematrikulatu dira. Bertze 14 ikasle B ereduan hasiko dira (erdia euskaraz eta erdia gazteleraz), gehienak Berako Jesusen Bihotza ikastetxeetan lehen aldiz hasiko diren 191 haurretatik 170 D ereduan (euskara hutsez) aurrematrikulatu dira.

2000-2001 ikasturteko aurrematrikulazio datuekin konparatuz, zenbait ondorio ateratzen ahal dira: alde batetik, heldu den ikasturtean aurtengoan baino 23 neska-mutiko guttiago hasiko dira ikasten. Aurten, 214 hasi dira eta heldu den urtean 191 izanen dira. Aipatu bezala, 2001-2002 ikasturtean D eredua izanen da nagusi, ikasleen %86ak eredu hori hau-

tatu baitu. Dena den, 2000-2001 ikasturtearen aldean euskara hutsez ikasiko dutenaren portzentaia zerbait jaitsi da (%92 hasi baita aurten D ereduan).

### Balorazio baikorra egin du Sortzen erakundeak

Sortzen erakundearen biltzen diren Nafarroako irakasleek balorazio positiboa egin dute aurrematrikulazio datu haue-taz, D ereduan izena emandako ikasleen portzentaia mantendu delakoz eta zenbait kasutan handitu. Sortzen-en ustez, «euskarak eta euskarazko irakaskuntzak Nafarroako Gobernutik eta UPNtik, baita politikari eta iritzi-sortzaile batzuen eskutik sofritu dituen hankatrabak guzietan aurre egin die». Irakasle talde honen erranetan, «guzti horri eta horiei aurre egin ez, gizarteak bertze lezio bat eman die eta elebitasunaren aldeko apostua egin du».

### Eskola publikoak

	2000-2001			2001-2002		
	A	B	D	A	B	D
Almendoz	0	0	3	0	0	3
Amaiur	0	0	1	0	0	2
Arantza	0	0	5	0	0	5
Areso	0	0	3	0	0	2
Beintza-Lab	0	0	1	0	0	1
Bera	0	0	12	0	0	10
Doneztebe	2	2	21	0	4	27
Elizondo	5	0	30	4	0	26
Eratsun	0	0	0	0	0	2
Erratzu	0	0	4	0	0	1
Etxalar	0	0	5	0	0	3
Gartzain	0	0	0	0	0	4
Gaizteia	0	0	4	0	0	6
Igantzi	0	0	3	0	0	3
Iruñita	0	0	2	0	0	4
Ituren	0	0	5	0	0	4
Lagasa	0	0	0	0	0	1
Leitza	0	0	18	0	0	10
Lesaba	0	0	20	0	0	10
Narbate	0	0	2	0	0	0
Oronoz	0	0	0	0	0	3
Saldias	0	0	0	0	0	0
Sunbilla	0	0	6	0	0	6
Ziga	0	0	1	0	0	1
Urd-Zugarra	0	0	3	0	0	3

### Ikastolak

Baztan	0	0	15	0	0	11
Bera	0	0	12	0	0	14
Lesaba	0	0	15	0	0	8

### Pribatuak

Bera	0	8	0	3	10	0
------	---	---	---	---	----	---

### Udalekuak euskaraz egiteko aukera zabaldu dute Euskara Zerbitzuek

Nafarroako bertze udal eta mankomunitate batzuk bezala, udalekuak euskaraz egiteko aukera eskainiko dute aurten ere Baztango Udalak eta Bortzirietako, Male-rrekako eta Iparraldeko Mankomunitade-ek, Nafarroako Gobernuaren laguntzaz.

Haur Hezkuntzako 3. mailako eta Lehen Hezkuntzako neska-mutikoei zazpi eguneko egonaldiak eskaintzen zaizkie Donostia-ko Errekalden, uztailaren 4an hasi eta abuztuaren 21a bitarte. Hondartza, espeleologia, orientazioa, tailerrak, Miramon Zientziaren Kutxagunea, paseoa barkuz eta bertze zenbait ekitaldi egin ahal izanen dira. Prezioa 14.000 pezetako izanen da.

Bertzalde, Lehen Hezkuntzako seigarren mailakoak eta DBHkoak Bizkaiako Ajangiz herrira joaten ahal dira, uztailaren 12tik 25a arte. Prezioa 15.000 ptakoa da.

Eskariak apirilaren 6a baino lehen egin behar dira Euskara Zerbitzuetan.

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz. Termita eta Polillen kontrako tratamendua

**BERA**  
DESINFECCIONES

© 948630155  
**BERA**

**SAROB**  
okindegia

**SANDERS** Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - **BERA**

**ERROTAR**

Eztegara 3 • Tfnoa: 948 630 198 • **BERA**

**ZELAIA** Harategia

Agerra Auzoan

Laudio pinturak

Barne eta kanpoaldea. Aurrekontua konpromiso gabe

Tel: 948631602-610627059

**GOYA**

JOSTAILUAK  
JANTZIAK  
OPARIAK  
ERREMINTAK

Altzate, 5 • © 948630083 **BERA**



**DBH adarra legeztatzea eskatu zuen berriz Labiaga Ikastolak**

Labiaga Ikastolako arduradunek 350 orrialdeko txostena aurkeztu zuten joan den astean Nafarroako Hezkuntza Departamentuan, ikastetxe honentzat DBHrako legezapena eskatuz. 1994tik aitzinera eskaera egiten duten hirugarren aldia da, baina oraindik ez dute baimenik jaso. Baimena ukatzeko aitzakia patio eta kiroldegirik ez izatea da, baina gaur egun gune publikoak erabiltzeko akordioa badago udalarekin. Dena den, orain arte hiru ikasle belau-naldik egin ditu DBH ikasketak Labiaga ikastolan.

**flash**

❖ **Korrika**  
Igande goizeko 7,10-ak aldera pasatuko da Korrika Beratik. Bezperan Petti eta Ruper Ordorikaren kontzertua izanen da Kultur Etxean, arratsko 10etatik aitzinera. Sarrerak Errekalde eta Kattu ostatuan hartzen ahal dira lehenagotik, 1.200 pezetat.

❖ **Oharra baserri-tarrentzat**  
Etxean behiren bat hilez gero 948 690 067 telefonora deitu eta kamioi bat pasatuko da eske.

❖ **Heriotz mehatxuak**  
Martxoaren 23an egitekoa zen Gure Txokoa elkarteak batzarra atzeratu egin zen au beratar atxilotu zituztelako, horietako 2 hainbat urtez elkartearekin estuki lotuak. Gau horretan ezezagun batek elkartera telefonoz deitu zuten heriotz mehatxuak eginen. Urteko batzarra joan den ortzirean egin zen azkenean.

❖ **Tecnopet**  
Udalak martxoaren 20an egindako bilkuran apirilaren 9a bitarteko epea eman dio Agerrako enpresa honi aspalditik bizilagunak eragozten dituen soinu arazoak moldatzeko, gainerakoan fabrika itxitzeko agindua eman dute-eta.

# Imanol Larrañaga eta Kotto Alzuguren kartzelatu dituzte

Bertze hiru atxilotu eta hainbat miaketa ere izan dira

**ASIER GOGORTZA**

Guardia Zibilak mar-  
txoaren 23ko goizean Beran atxilotutako lau beratarretatik bi Madrilgo Soto del Real gartzelara bidali ditu Guillermo Ruiz Polanco epaileak, eta Bixente Goia-  
ren kontrako akusazioak gertzatu zituzten epailearen aitzinean.

Ortziraletik astearte-  
ra Guardia Zibilaren esku inkomunikaturik egon ondotik, Bixente Goia, Imanol Larrañaga eta Kotto Alzuguren epailearen aitzinera eraman zituzten eta ofizio-  
ko abokatuarekin deklaratu behar izan zuten, beren abokatuari ez baitzioten salara sartzen utzi.



**Imanol Larrañaga zinegotzia da Berako udalean, eta Kotto Alzuguren ere aitzineko legealdira bitarte Udalbatzarreko kidea izan zen.**

Atxilotuek Guardia Zibilaren esku egon ziren 5 egunetan bortizki torturatuak izan zirela adierazi dute eta beren kontrako akusazioak gertzatu zituzten epailearen aitzinean.

Deklarazioak aditu ondotik epaileak Alzuguren eta Larrañaga ETari laguntza ematea leporatu eta baldintzarik gabeko gartzela agindu du biezat. Bixente

Goia, berriz, egun osoa Soto del Real gartzelan eman ondotik libre utzi zuten asteazken iluntzean.

**TENTSIOA HERRIKO MOBILIZAZIOETAN**

Atxiloketen ondorioz herrian hainbat bilkura eta protestaldi egin zituzten bizilagunek denentuen egoeraz mintzatu eta beren egoera salatzeko. Herrian egin-

dako mobilizazioetan Guardia Zibilak arrontz jarrera oldarkorra agertu zuen hauek galerazi nahizik.

Berako Udalak aho-batez onartu zuen atxilotuen egoeratik kezka agertzen zuen mozioa, eta bilkura horretan azpimarratu zen hau zein bertze errepresio egoerei soluzioa bilatzeko bidea Euskal Herriaren hitza onartzea dela.

© 948 631462  
Altzate I • BERA

**Ortziraletan, 10etan  
Mus Txapelketak**

**E E K L E  
s t t u**

Tfnoa: 948630259 - BERA

**OKANE**

**HARATEGIA • URDAITEGIA**

Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

**LESKA**

# Etxebizitzaren arazoari irtenbidea bilatu nahizik proposamena prestatu du EHk

Joan den ortziralean egitasmoa aurkeztekotan ziren, baina gibeleratu egin dute

**AITOR AROTZENA**

Azken urteetan lesakarrak ondoko herrietara bizitzera joaten ari direla ikusiz eta Lesakako etxebizitzaren arazoari irtenbidea eman nahizik proposamena prestatu du EHk. Talde honen ustez, gure herrian ezinezkoa da etxebizitza prezio egoki eta eskuragarri batean lortzea, batez ere gazteen zat. Etxebizitzak prezio eskuragarrietan ez eraikitzearen bertze ondorio bat, saltzen diren bigarren eskuko etxebizitzaren prezio altua da. 1996an herrian egindako inkestaren ondorio nagusietako bat, Lesakan erosteko eta alokatzeko etxebizitza gutti daudela eta daudenak hagitz garestiak direla izan zen.

EHren ustez Lesakako etxebizitza politikak ez dio erantzuten herritar gehienek dituzten beharrei. Arazo hau larria izanda ere, badu irtenbidea eta konponbidea «borondate pixko batekin, herrian dauden aukera batzuk ongi aprobetxatuz gero» EHren arabera. Zahar-etxe zaharra bota ondodetik gelditu den lur-eremuan aitzinera eraman daitekeen proiektua landu du EHk. Arau subsidiario-



## Agiñako Auto Rallya, igande honetan

Igande honetan, apirilak 8, arratsaldeko 3etatik aitzinera burutuko da Eguzki elkarteak seigarren urtez antolatutako Agilako auto igoera. Errepidea, arratsaldeko 2,30etan itxiko da. Urtero bezala eta Gardelko Bagoetan ateratako argazkiak erakusten duenez, milaka lagun bilduko dira Agiñako errepide bazterretan.

Artxibokoa

en arabera, babes ofizialeko hamabi etxebizitza eginen lirakeke bertan, baina EHren ustez, «tikixegoak eginda 16 izaten ahal dira, batzuk saltzeko eta bertzeak errentan emateko». Joan den ortziralean aurkeztu behar zuen proposamena, baina azken gertakarien ondorioz, gibeleratu egin da.

## Ainara Fresneda kartzeleratu dute

Ainara Fresneda Etxeberria 26 urteko gazte lesakarra atxilotu zuten guardia zibilek Irunen martxoaren

27an. Gero, bere eta senide batzuren etxebizitzak miatu zituzten, indar erakustaldi ikaragarria eginez. Etxe hauetan sartzeko giltzak eskaini arren, ateak bota egin zituzten eta barnean zeudenak pistolaz mehatxatu. Muga pasatzeko laguntza eman izana leporatu diote Ainarari. Ortziralean epailearen aitzinean pasatu ondorik, kartzeleratu egin zuten. Torturatu egin zutela erran zien beregana hurbildu ahal izan zutenei.

Atxiloketaren astean batzarrak, manifesta-

zioak eta kontzentrazioak egin ziren, guardia zibilek eragozpen eta traba aunitz jarri zituzten arren. Martxoaren 29an egindako ez ohiko batzarrean, Ainarari inkomunikazioa altxatzea, mediku eta abokatuaren laguntza berehala ematea eta bere eskubideak errespetatzea eskatu zuen ahobatez Udalak. Egun batzuk lehenago, Beñat Atorrasagastiren bila ibili zen guardia zibila eta bere amaren etxea miatu zuen. Talde armatuari laguntza ematea leporatzen diote Beñati ere.

## Kultur ekitaldiak antolatzeko dirulaguntza

Martxoaren 19an Bortzirietako Euskara Mankomunitadearen Batzorde Erabakikorrak Lesakan kultur ekitaldiak egiteko 100.000 pezetako partida onartu zuen aurten gastatzeko. Herriko elkarte eta talde ezberdinen proposamenak Bortzirietako Euskara Mankomunitadara bidali behar dira maiatzaren 4a baino lehen eta Lesakako Euskara Batzordeak maiatzaren 14an eginen duen bileran erabakiko du zeintzuk izaten ahal diren ekitaldirik egokienak.

## Korrikako egitaraua

Korrika herritik igarotzen dela ospatzeko eta goizaldera arteko itxaronaldia alaiago egiteko hainbat ekitaldi antolatu ditu Korrika Batzordeak larunbat honetarako. Arratsaldean, poteoa eginen da trikitilari eta bertsolariekin. Herri afaria izanen da Kattu jatetxean, txiste kontalariekin. Afariaren ondodetik, txaranga ibiliko da karrikaz karrika. Igande goizeko seiak aldera ailegatuko da Korrika Lesakara eta ondodetik, baratxuri zopak eskainiko dira Arranon.

**XATURETXEA**  
JATEXEA  
Tfnoa: 948637027 LESAKA

**IRU BIDE**  
ERRETEGIA  
Tfnoa: 948 637 127  
LESAKA

**ANARIDENDA**  
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

**KATTU**  
ostatu - jatetxea  
Plater konbinatuak eta menuak  
© 948627573 • LESAKA

**Lurrindenda**  
Marian  
Londiberri  
Estetika  
Behoko Plaza 3 © 948637791 • LESAKA



**ETXALAR**

# Eskolako haurrek eta helduek parte hartuko dute Korrikan

Ttikiak ortziralearan aterako dira eta helduak igande goizaldean

JOSEBA ETA NEREA

12. edizioa du aurtengo Korrikak. Urtero hurbiltzen da inguru honetara euskararen aldeko ekintza hau eta aurtengoan apirilaren 7an egingen du. 600.000 pertsona inguru biltzen duen ekitaldi honek etxalartar ugari mugituko du. Altxata kultur elkarteak eta Etxalarko EHk kilometro bana erosi dute. Dena den, bildutakoek bat bakarria korrituko dute; Sunbilatik aitzinera. Igande goizeko 4:20etan jarria dute ordua eta bertara hurbiltzeko kotxeak antolatzeko asmoa dute. Apuntatu nahi duenak herriko ostatueta eman beharko du izena.

**TTIKIENAK ERE LASTERKA**

Landagain eskolako ikasleek egun bat lehenago ospatuko dute Korrika. Bertze urte batez, haur guziek hartuko dute parte euskararen alde. Aitzinetik, haur bakoitzak bere dortsala prestatuko du, dago-kion zenbakiarekin. 4:30etan denak bilduko



**Beraien dortsala prestatu ondotik, Landagain eskolako neska-mutikok Korrika Ttikian hartuko dute parte ortziral arratsaldean.** Artxibokoa

dira, herrian lasterka buelta bat emateko. Ondotik, guraso elkarrekin prestatu izanen dute plaza indarberritzeko.

**Atxilotuen aldeko kontzentrazioa**

Martxoaren 23an Beran Guardia Zibilak lau gazte atxilotu zituen. Hori dela eta, Etxalarko EHk gazte hauek askatzearen aldeko kontzentrazioa deitu zuen. Larunbatean, martxoaren

24ean, arratsaldeko zortzietan, Udaletxeko arkupean herritar multzo bat bildu zen. Kontzentrazio ixila izan zen arren, Guardia Zibil andana izan zuten inguruan bildutako guziek.

**Etxalarko Arkupeko jubilatuen bazkaria**

Martxoaren 25ean ospatu zuten Arkupeko jubilatuek beraien eguna. Aurten hildako kideen omenez egindako mezak eman zion ha-

siera egun honi eta ondotik 60 lagun bildu ziren bazkari eder baten inguruan. Bazkalondoren, Ramontxoren musikaren erritmora egin zuten digestioa eta arratsa arte luzatu zen ospakizuna.

**Oinarriak-eko kamisetak salgai**

Euskararen aldeko Oinarriak plataformaren kamisetak salgai daude Herriko Ostatuan 1.500 pezetaren truke.

**flash**

**Irakasle berria Landagainen**

Kontxexi Arangoa bajaran dagoela eta irakasle berria daukate 3. eta 4. mailako ikasleek. Arantzako Rosa Mari Maiz dago martxoaren 15etik Aste Santu ondorarte irakasle. 21 urteko gazte honek bukatu berri ditu Majisteritza ikasketak Donostian. Psikopedagogia egiten ari den bitartean, praktikak Etxalarko eskolan egitea egokitu zaio.

**Desinfektazio gunea Lizarietan**

Europar zehar dabilen ahoeria (sukar afetsosoa) gure zonaldera ez sartzeko, desinfektazio balsa bat paratu dute Lizaiaetako gainean. Iparraldetik datozen kotxeek bertatik pasatu beharko dute.

**Kontzertua Herriko Ostatuan**

Apirilaren 7an "Pablo Liquido" abeslariak kontzertua eskainiko du Herriko Ostatuan gaueko 10etatik aitzin. Abeslaria «2x2» taldeko kidea zen lehen.

**IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU**

- Liburuak
- Papertegia
- Tabakoa
- Plastikazioak egiten ditugu
- FAX publikoa
- Enkuadernatzeak
- Inprenta lanak

Enkuadernatzeak espiralean ere egiten dira

Legaitrea, 9 • © 948 637 030 • LESAKA

**HARITZPE**

948635235  
948635038

**GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK**

Egunero idekia. Asteazkenetan atsedean eguna.

**HERRIKO OSTATUA**

**Jatetxea**

948635290 **ETXALAR**

**«USOA»**

NEKAZARI KOOPERATIBA

Ganaduarentzat pentsurik egokiena

Tfnoa: 948635214

**ETXALAR**

**IGANTZI**

# Larunbat arratsalde eta igande goizean: Korrika 12!!

Joxe Mari Almandozen dimisioak aldaketa ekarriko du udalera

**OSKAR TXOPERENA**

Bertze bi urte joan zaizkigu ustekabeen eta hemen dugu berriz ere Korrika, 12.a hain zuzen ere. Igande goizaldean du bere hitzordua Igantzitik pasatzeko, 5ak aldera. Beraz, aurtengoan lasterka ibili nahi duenak goiz mugitu beharko du, edo gaua berandu arte luzatu, denetik izanen baita seguraski. Aitzinekoan bezala, hiru kilometro egitea egokitu zaigu igantziarroi, hiru baitira erosi direnak ere: Herrikoetxekoa, Biltoki eta Eskolak Guraso Elkartearekin erdi bana egindakoa. Ondotik, gosaria egin behar omen dute ibiltzen diren guziek Biltokin, baina hori bertze nonbait ere jakinaraziko dute segurrago. Korrikaren besta, ordea, larunbatean



**Larunbat arratsaldean izanen da haurren txanda Korrika 12an. Argazkian Haur Hezkuntzan zeuden neska-mutikoak ikusten ahal dira, orain dela bi urteko herriko itzulixka egiten.** Argazkia: Oskar Txoperena

hasia izanen da Korrika Ttikirekin. Berez, ibilbide eta ekitaldien presetaketa eskolan egin dute irakasle eta ikasleen artean, eta Gurasoen Elkarte larunbateko antolakuntzaz arduratuko

da: Ibilbideaz, pilotalekuan egingen diren ikuskizunez, berenduz...

**Dimisioa Herrikoetxean**

Joxe Mari Almandoz Telletxea zinegotziak

bere dimisioa aurkeztu zuen Herrikoetxean. Jakina denez, EAJ/EA taldeko partaidea zen, eta orain zerrendako hurrengoari utziko dio bere postua, Jose Jabier Urtxegi Huitziri.

**Haurrak pilotan**

Eskolarteko eta Doneztebeko Txapelketan jokatzeko sei pilotari. Eskolarteko Txapelketan Baztan aldeko hiru eskolen aurka jokatzeko egokitu zaie: Baztango Ikastola eta Erratzu eta Almandozko Eskola. Partiduak joan-etorrikoak izanen direnez, guzira sei partidu jokatu beharko dituzte. Benjaminetan Aitor Begino eta Beñat Txoperenak partidubak irabazi eta bertzea galdu dute, eta alebinetan Iñaki Sein eta Imanol Goienetxek biak galdu, joan den asteko partiduan hagitx ongi jokatu bazuten ere. Doneztebeko Txapelketan, berriz, joan den igandean haseteoak ziren Iker Sein eta Ibai Retegiren partaidetzarekin baina ezin emaitzarik momentuz eman. Erran behar da txapelketa honetako zenbait partidu Igantzin bertan jokatzeko aukera gustora hartu dela herrian.

**BERA**  
© 948631076 • BERA

**BERRAZUN S.L.**  
Makinaria eraikuntza  
Moldaketak eta despiezea  
Mantenimendu mekanikoa  
Torno, fresadorak, errektifikadorak  
Igantziko Bentak • © 948 627572 • Faxa: 948 637508

**KOXKILA OSTATUA**

Zarandia, 4 - **LESAKA**

**ATM S.A.**

**AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.**

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantziko Bentak • © 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

**Ostargi Optika**

**OPTIKO OPTOMETRISTA**

- Lentillak
- Ikusmen azterketa orokorrak
- Begietako tentsioaren kontrola
- Hurrei errebisioa egiten zaie

**Eta behar izanez gero...  
ERA GUZTIETAKO  
BETAURREKOAK  
DITUGU ZURETZAT**

Bidasoa karrika, 8 • BERA • © 948 63 07 53

**ARANTZA**

# Herriko Etxeko teilatua moldatzeko lanak Azpiegitura Planean sartu dira

Larunbateko Korrika Ttikiaren ekitaldietan Jon Bergaretxek kantaldia eskainiko du

ELIXABET ETA GARBIÑE

Arantzako Herriko Etxeko teilatuaren moldaketa lanak 2000. urteko Toki Azpiegitura Planean sartu du Nafarroako Gobernuak, Toki Administrazioiko Zuzendari Nagusiak ilbeltzaren 31n sinatutako idatziaren arabera. Aipatutako lanak egiteko, Francisco Javier Chocarro eta Maria Urmeneta arkitektoek aurkeztutako proposamena onartu da. Proiektua eta zuzendaritza lanak 423.400 pezetaren truke egingen dituzte (BEZa barne). 28 egunez egingen direla lanak adierazi dute.

### Korrika Ttikia

Korrikaren hamabigarren edizioa Bortzirietatik apirilaren 8ko goizaldean pasatuko da. Korrika Baztan aldetik



Argazkia: ttipi-ttapa TB

### Herri Kirol Jolasetako finala igandean Etxarri Aranatzan

Igande honetan, apirilak 8, goizeko 11etatik aitzinera jokatu da Etxarri Aranatzan Nafarroako Herri Kirol Jolasetako finala. Jakina denez, herrikoak proba konbinatuan ari dira, bai haur baita kadete mailan ere. Orain arte ederki aritu dira, beraz finalera itxaropentsu joan dira.

etorriko da eta gure eskualdetik Baionara joanen da. Bezperan, apirilaren 7an, egingen da herrian Korrika Ttikia, Euskara Batzordeak antolatua. Korrika ttikia arratsaldeko 5,30etan abiatuko da beheko pisuetatik eta Gazte Asan-

bladak hartuko du lekukoa. Plazan eskolako koei txanda emanen diote. Hauek Larreta auzoko Zelaialderaino eramanen dute eta han Guraso Elkarteak hartuko du, Martixeneko atariraino. Bertan, Udalak hartuko du lekukoa eta

azken zatian, Goienburutik plazaraino Ekaitza elkarteak eramanen du lekukoa. Lasterraldi honen ondotik berendua izanen da Zahar Txokoran eta bestari akabaila emateko, Jon Bergaretxek kantaldia eskainiko du, 8,30ak aldera.

### Aspace elkartearen eskaera

Aspace Navarra elkarteak Berako San Jose Zahar Etxean ezindu psikikoentzat zentru bat irekitzeko dirulaguntza eskaera ikusirik, udal batzarrean ahobatez erabaki zuen eskaera hori onartzea. Honela, 1.227.513 pezetako dirulaguntza emanen da.

### Idazkaritzako ordutegia

Bortzirietako udal langileentzat Lesakako euskaltegiak ikastaroa antolatu du. Ikastaro hori apirilean eta maiztzean izanen da eta herriko idazkariak parte hartuko duenez, ordutegi berria izanen da idazkaritzan: astelehena eta asteartea goizeko 8etatik 1etara eta asteazken, ortzegun eta ortziraletan 8etatik arratsaldeko 3etara.

**ttipi-ttapa internet**  
<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>  
 E-mail: ttapi-ttapa@topagunea.com

**Alberto RETEGI**  
 abokatu  
 Alzate 17 • BERA • © 948 630 763

**ETXANDI TXOKO**  
 jatetxea  
 Bazkari, afari eta gosariak  
 ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91

**LESKA**

**TOLDOAK** SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIURUA-ERROTULAZIOA

Eguzkitik babestekoak (elektriko edo eskuzkoak) • Toldo mugikorak • Igerilekuetako sareak • Kamioentzako toldoak • Estutzeko uhalak • Aluminio, PVC, Egurra eta Seguridadekoak • Motorizatuak pertsianak altxatu eta jausteko • Kontraleihoak • Estoreak • Eulien kontrakoak...

☎ 948 63 10 03  
 Fax: 948 63 10 03  
 Alkaiaga Ind. • Baldrun, 8 • LESAKA - BERA

**PERTSIANAK**  
 ERA GUZTIETAKOAK, MOTORIZATUAK, ESTOREAK

**KAKULÆ**

- Sukaldeko tresnak
- Opariak
- Pinturak

Albistur, 51 LESAKA  
 ☎ 948 63 75 58



**SUNBILLA**

# Ekitaldiz gainezka burutu da aurtengo Kultur Asteburua

Mendi-bizikleta ibilaldia ere arrakastatsua suertatu zen

JAIONE ETA ALBA

Martxoaren 23tik 25era Asteburu Kulturala burutu zen. Ortziralean arratsaldean haurrek gozatzeko aukera izan zuten, gaztelu puzgarria, PlayStation, magia tailerra eta txokolatada izan baitzuten.

Larunbatean, eskolako neska-mutikoek egindako lanen erakusketa eta sari banaketa egin zen. Ttikienek, bigaia gaitzat hartuz egindako marrazkiak saritu zituzten. Hiru urtekoen artean, Ana Petrirenarena izan zen onena, lau urtekoetan Andoni Espelosen eta bortz urtekoetan Jon Gago. Eskulanetan, lehen eta bigarren mailako artean Olaia Gandarak egindako zapela, hirugarren eta laugarren mailako artean, Maite Mendibilen itsasontzia



**Olaia Gandarak egindako zapelak lortu zuen lehendabiziko saria, lehen eta bigarren mailako ikasleen artean.** Argazkia: ttipi-ttapa TB

eta bosgarren eta seigarren mailan Nekane Agirrerren mikroskopioa saritu zituzten.

Arratsaldean futbol txapelketa jokatu zen Fondan eta Alkoholiko Anonimoak erakundeak solasaldia eskaini zuen. Ordu berean, profesionalen arteko pilotatardak jokatu ziren

pilotalekuan. Lehenbizikoan, Retegi VII beratarren debuta izan zen azpimarragarriena. Bigarrenean, berriz, Espainiako eskuz binakako txapelketako partida jokatu zen. Otaegi eta Errandonea IIIk 22 eta 20 irabazi zieten Atxa eta Gabarri IIari. Igandean, egun oso-

an, eskulan erakusketa izan zen ikusgai. Goizean mus txapelketa jokatu zen eta arratsaldean, emakumezkoen frontenis eta gizonezkoen pala partidak. Arratseko 8etan bi zari zozketatu ziren eta Jorge Arretxea eta iturendar bati egokitu zitzaion.

## Mendi-bizikleta lasterketa

Martxoaren 17 eta 18an herriko gazteek antolatutako mendi bizikleta lasterketa burutu zen. Larunbatean 8 kilometroko kronoigoera egin zen eta igande goizean 26kmko rallya. Larunbatean 3,30ak aldera hasi ziren ikusten lehendabiziko txirrindulariak herrian barna. Lehenbiziko egunean 33 txirrindulari ateratu ziren. Zugaitz Ayuso nagusitu zen bi probetan.

*Personaiak*

## Urrezko Aizkoran aitzinera

Aitzinetik Arria V.aren kontrako apostua galdu zuen arren, Urrezko Aizkorako lehen kanporaketan sasoi puntu onean zegoela erakutsi zuen Felix Etxeberria aizkolari sunbildarrak eta Barberena kanporatu zuen martxoaren 18an Getxon. Igandean



**Felix ETXEBERRIA**

**BEINTZAKO OSTATUA**  
© 948 450 014  
BEINTZA-LABAIEN

Ibarrola Mertzeria  
Haurrendakoa arrapa  
0-14 urte  
Parrokiako kultura - Donostia  
948490433  
*Negurako modelo berriak*



**APARAN, S. A.**  
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133  
948 451 541  
Faxa: 948 450 334  
**DONEZTEBE**



**MARTIKO**  
*Gure baserrietako produktua*

© 948 625016 • Fax 948 625036  
Alkaiaga Industrialdea • BERA

➔ **DONEZTEBE**

# Iaz herrian sortutako hamalau haurrek bere haritza dute Bordaxuri inguruan

Errekak antolatutako paleta txapelketan izena emateko epea apirilaren 8an akituko da

**PATXI IRIARTE**

Doneztebeko Herriko Etxearen ekimenez, joan den urtean herrian sortutako neska-mutikoei beraien zuhaitza dute Bordaxuri inguruan. Zuhaitz landareek haurren izen-abizenak eta jaiotze-data biltzen dituen plaka idute. Martxo hasieran, gurasoak, haur batzuk, Miguel San Miguel alkateak eta bertze herriar batzuk parte hartu zuten zuhaitz landaketan. Alkateak adierazi zuenez, «neska-mutiko hauek beraien zuhaitza zaintzen jakitea espero dugu, eta ingurumena eta natura errespetatuz haztea».

2000. urtean bederatzita mutiko eta bost neska sortu ziren: Alaia Iribarren Gonzalez (martxoaren 7an), Patxi Martin Arregi (martxoaren 20an), Goio Jesus Mindegia Eleta (martxoaren 22an), Xabier Bengoetxea Rekarte (martxoaren 27an), Iñigo Oiartzabal Zoco (maiatzaren 21ean), Iñigo Belarra Oteiza



**Bordaxuritan landatutako haritzek joan den urtean herrian sortutako neska-mutikoen izenak izanen dituzte.**

Argazkia: Foto Zaldia

(ekainaren 6an), Irati Huarte Sanz (uztailaren 9an), Joana Gartziarena Hualde (uztailaren 20an), Xabier Iriarte Ibarrola (abuztuaren 12an), Andres Ostiz Olalla (urriaren 2an), Carlos Ostiz Olalla (urriaren 2an), Melanie Ribas Salazar (urriaren 4an), Yonatan San Martin Monsalvo (azaroaren 12an) eta Paula Arotzena Jorajuria (azaroaren 14an).

## Sari bereziak izanen ditu VII. paleta-goma txapelketak

Erreka elkarteak zazpigarren urtez antolatutako Doneztebeko paleta-goma txapelketan izena emateko epea igandean, apirilak 8, akituko da. Horretarako 948 450144 telefonora deitu behar da eta bikote bakoitzak 3.000 pezeta ordaindu beharko da. Gehienez hogeiki bikote onartuko dira.

Txapelketa maiatza eta ekainean jokatu da. Erreka elkarteak aurtengo hobe bost urte betetzen dituela kontuan hartuz, sari bereziak eskainiko dira. Lehen saria 50.000 pezeta, txapela eta trofeoak izanen da; bigarrena 30.000 pezeta eta trofeoak eta hirugarrena 15.000 pezeta eta trofeoa.

▼ **flash**

❖ **Liborio Ariztia**

Urtxintxa-Aptiva taldean ari den txirrindulari doneztebarrak, denboraldi honetako lehen garaipena lortu du junior mailan. Garaireko 61. Itzulia irabazi zuen martxoaren 18an, Perdonera igaitean ihesi joan zen boskotean gailendu ondotik. 75 kilometroko ibilbidea osatzeko ordu bete 50 minutu eta 53 segundu behar izan zituen. Garaipena, bere osaba Jose Mariri eskaini zion. Taldeka ere Urtxintxako-entzat izan zen garaipena. Ariztiak 17 urte ditu eta lehenbiziko urtea du jubencil mailan. Iaz, kadetetan, hiru garaipen lortu zituen.

❖ **Herri Liburutegia**

martxoaren 26tik apirilaren 23ra itxia egonen da, egoitza berrira liburuak eraman behar direlako.

## MINDEGIA TRIKIDANTZ

- EZKONTZAK
- KINTO BESTAK
- INAUTERIAK
- BESTAK

© 948451507 / 646298568 / 659 379917  
ITUREN



## BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepede nazionala, 54. km  
Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA



**ezkontza**

**Gehigarri Berezia**

Argazkia: AYLA





*Gonbidatuendako oparituok, emaztegiandako loresortak, eliza edo epaitegiko apainketa...*

Alzate, 26 • BERA • 948 63 11 21



# Ezkontza batendako aurrekontua

Bikotekideek "baiezkoa" adosten duten momentutik beretik hasten da diru dantza. Ezkontza bateko aurrekontuak goiti egiten du kontratazen diren zerbitzu desberdinen arabera.

Ezkontza baten aurrekontua prestatzerakoan, hobereena gastu finkoetatik abiatzea da, eta gero norberaren gustoko xehetasunak gehitzen joatea. Ezkontzen inguruko sektorea handitzen ari da arras, eta gaur egun ezkontza pertsonalizatuak prestatzen dira familia eta lagunentzat ahalik eta egun bereziarena izan dadin.




**IRUDI**  
EGUN ZORAGARRIA OPI DIZUEGO!

Horretarako, era guztietaiko ezkon-gonbidapenak, oparituak eta eliza eta epaitegiak, jantzi-bidaiak, zigarro-koak, eta eskaintzen dizkizuegu.

Gainera: Artisau-konak, abarrik, paperak, sobrak, despojidatutako harrizak, eta...

**BERA 948 631 521**

## Lehenik gonbidapenak

Lehen urratsa lagun eta familiakoei gonbidapenak igortzea da, ezkontzaren

eguna jakinaraziz. Garrantzitsua da gonbidapen txartel ona aukeratzea, deig-

rria eta gustagarria. Generalean artisauek aukeratzeko dute bikote gehienek.

Aldiberean opariak aukeratzeko hasten ahal da, gonbidatuen artean banatzen diren oparituok, alegia. Puro eta zigarroak izan ohi dira, bainan zenbaitek figuratxoren bat edo ispiluren

**Gaur egun ezkontza pertsonalizatuak prestatzen dira bikote bakoitzarentzat.**



**J.J. Pikabea**  
GIZONGAIENDAKO JANTZIAK

AMEZTIA Z/G • DONEZTEBE  
948 451 670



**GOIKO**  
Argazkidenda

**EZKONTZETAKO ARGAZKI ETA BIDEO ERREPORTAIK**

Alzate, 32  
Tel-Fax: 948 630 515  
**BERA**



bat ere banatzen dute, hortara dedikatzen diren enpresa espezializatuak daude eta. Lehen urrats hauen gastua 60.000 pezeta ingurukoa izan ohi da.

Gero heldu diren gastuen artean garrantzitsuenetakoa jantzienak dira. Emaztegiak banaz bertze 250.000 pezetatara soinekoa aurkituko du, baina aunitzek hortik goiti jotzen dute egun horretan ahalik eta distiratsuen egoteko. Ezkontza-beloak 25.000 pezeta garestituko du aurrekontua, eta kankanak bertze 25.000 bat pezeta. Gero jokoa eginen dute zapatak erosi behar dira, 10.000 pezeta inguru larruzkoak badira, edo garestixeagoak soinekoaren oihalarekin forratuz gero. Egun horretan eraman beharreko barne arropak berezia izan behar du, beraz, ohi dena baino diru gehixeago uzten da, 10.000 pe-

zeta inguru. Galtzariak bakkarik 3.000 pezeta balio du, baina ia ezinbertzeakoz izaten da emaztegiatant. Senargaiaren jantzi osoak 100.000 pezeta inguru balio du banaz bertze. Gainerako osagarriak ere ez dira debaldekoak, bitxiak eta erramua errate batera. Lore dekorazio guzira 75.000 pezetara hurbilduko da.

### Eliza eta bazkaria

Hauetz gain badira saihestuz ezinezko bertze zenbait gastu: eliza errentan hartzea (argi instalazioa eta apaizarekin 20.000 pta guti goiti beheiti) eta nola ez, otordua. Menu baten banaz bertzeko prezioa 10.000 pezeta inguru izan ohi da. Bazkariaz gain, ordea, badira otorduarekin lotutako gastu gehiago. Orkestra baten emanaldiarekin segituko du bestak, eta

hau kontratatzea 70.000 pezetaren bueltan ibiliko da. Elizan ere koroaren ahotsak aditu nahi dituztenek 60.000 pezeta gehiago ordaindu beharko dute musika kontuengatik.

Bitartean, argazkilari profesionalaren erreportaiak egun horretako une berezi guziak hartuko ditu bere kamararekin. Honek ere 85.000 pezeta inguru balio izaten du.

Akautzeko, ezkon-bidaia izaten da gasturik handienetakoa. Izan ere, bidaia ahanztuezinezko esperientzia bat bihurtu nahi izaten dute bikote gehienek, eta horretarako milioitik goiti egiten dute agentzien aurrekontuek.

Guzira, beraz, ezkontzako gastu guziak elkartuta 5 milioitik goitiko kopurura ailegatzeko ahal dira. Kopuru hau aditzea aski da zenbait bikote izerdi batean jartzeko. ♦

**ARIMAK GAUZA GUTI BEHAR DITU; GORPUTZAK, AUNITZ.** GEORGE HERBERT

**ZAPATADENDA**  
Parrokia, 17 • DONEZTEBE  
948 450 289

*Zaldua*  
Fotografos

**EZKONTZA ERREPORTAIK**  
**argazkietan eta bideoan**

- Argazki Digitala •

Elizondo eta Doneztebe  
948 580 491 • 948 452 402

*Kalash*  
bitxidenda  
erlojudenda

Kanttonberri, 8 • BERA • 948 630 751  
Merkataria • DONEZTEBE • 948 451 519



EZKONTZAK  
BATAIOAK  
JAUNARTZEAK



Iruñea-Irun errepidea, 70. km  
ETXALAR  
Tel. 948 63 50 00  
Fax. 948 63 52 63

*M<sup>a</sup> Eugenia Sobrino*  
**BIDAI AGENTZIA**

**Ezkontz bidaietarako  
aholkuak eta aurrekontuak  
prestatuko dizkizuegu**

**Mexiko, Tanzania,  
Zanzibar, Europa,  
EEBB, Kanariak...**

**Amaiurko gaztelua, 2  
948 452 293**



948 450 112  
DONEZTEBE



# Milurte berriko azpiko arropa

**Barne arropak mugimendu erraztasuna bilatzen duten emameentzat pentsatuak daude. Jantziak gorputzari itsekiak doazi eta elastikoak dira edozein egoeratarara moldatzeko.**

Aipatzekoa da jantziei xarma berezia ematen dieten farfailak indarrez heldu direla berriz. Orain koloreak agintzen du eta udaberriean arroxak, lilak, urdin eta berdeak eramanen dira gehien, klasikoak alde batera utzi gabe: artile kolorekoak, xuriak, beltzak eta transparentziadun koloreak. Formari dagokionez, kolore eta ehundura arin eta tinkoak erakusten dizkigute marka gehienek.

## Senargaien barne arropa

Ezkongaien modari buruz, erran dezakegu senargaiak emaztegaiak atzean utzi ditzutela azpiko arropak aukeratzeko orduan. Gizona-erentzat kolore eta materialetan diseinu aurreratuak ageri dira. Diseinu finagoak dira eta koloreak beltzatik xurirarte aukeran daude, grisetatik eta urdinetatik pasatuz, bertzeak bertze.



Emakumezkoetan, berriz, kanpoko arropak agintzen duela eta horregatik oraindik indarrean daude bularrerako leunak, tiranterik gabekoak eta bizkaraldekotik arras irekiak, etab...

Jantzi hagitz berezia eta bere eusteko moduagatik moda-modan dagoena korselettea da, soinekoaren azpitik eramateko arras konpletua.

Koloretan, nakarrak agintzen du bainan xuria ere kontuan hartu behar da. Arratserako lenterian emakumeen fantasiari askatasuna ematen zaio. Emakumeen gutziak aldatzen ari dira bainan ia beti garrantzi handia emanez materiale naturalai. ♦

**Helena ERASO**  
MARI CRUZ LENCERIA



**Beatriz**  
ileapaindegia  
**DONEZTEBE**



- Ezkontzetarako orrazkerak
- Koloreak
- Koloniak

*Aukera zabala zilarrezko bitxietan*  
San Miguel auzoa • 948 450 922



# Ezkontzetako ohituren jatorria

**Ezkontza guzietan errepikatzen diren jokatibide aunitzek izaera sinbolikoa dute, hala nola, elizaren edo epaitegiaren atariko arroza botatzea, bitxi batzuk edo berzeak eramatea...**

Ezkontza erritoetako ohiturak aski zaharrak dira, eta aunitzek jatorri ekonomikoak duten arren badira siniskera zaharrekin lotutakoak ere. Aitzina, adibidez, nekazariak uste zuten ezkontza egunean emaztegaiak negar eginez gero zorte ona izanen zutela eta so-roetan behar adina euri egiten zuela urte horretan.

## Aspaldiko tradizioak

Tradizioak dioenez, gizon batek emaztea edukitzeko beharra sentitzen zuenean emakume bat bahitu eta gordeleku batera eramaten zuen familikoek jakin gabe. 30 egun pasa behar zituen han, ilargiaren lau faseek irauten duten denbora. Hemendik heldu omen da elizan andregai gizongaiaren ezker aldean jartzeko ohitura, izan ere, bahiturik ez-



kontzen zenez gero, gizon-gaiak esku hori kontzen zion eskuinekoarekin ezpata eusten zuen bitartean, senide-aren bat emaztegia erreskatatzen saia ez zedin.

Emaztegia ez dira beti xuriz jauntziak ezkondu. Inozentzia eta birjintasun sinbolo hau XVI. mendetik heldu da, Victoria erreginak jarri zuen modan. Ordurate zilar kolorea erabiltzen zen. Beloak ere Ingalaterran jarri ziren modan xumetasun eta garbitasunaren seinale gisa, baina lehenagotik Ekialde

Ertaineko eta Asiako kulturak erabiltzen zuten emaztegiaren aurpegia zeremonia hondarrerarte estaltzeko. Senargaiak orduan bakarrik ikusten ahal zuten emaztearen aurpegia. Bertzalde, zeremoniaren ondotik emaztegiai erramua botatzen du eta erramua hartzen duen neska omen da hurrengo ezkongai. Gauza bera gertatzen da andregaiaren galtzarrekin ere, baina oraingoa gizon ezkongabeen artean. ♦

## Sineskeria guzi hauek

**bikotearen zorientasuna**

**segurtatzea dute helburu.**



**Gonbidatuendako oparitxoak  
Etxerako ezkontz opariak**

Tel. 948 451921  
Nagusia 19 • DONEZTEBE





**IPINGI  
jantzidenda**

Santiago, 88  
ELIZONDO  
948 580 939



**MALDAERREKA**  
Bidai agentzia

### EZKONTZA BIDAIAK:

Tailandia, Bali, Mexiko, Egipto,  
New York, Kalifornia...

### ESKATU AURREKONTUA LOTURARIK GABE

Bittiria karrika, 71 behea  
31770 Lesaka  
Tel. 948 638 153



  
**loredenda**

Albistur, 39 K • LESAKA • 948 627 542



Ikusentzutezko  
produkzioak



Fco. Javier Varela

Bideo Profesional erre-  
portaiak

948 599 055 • 609 488 612



**FOTO MENA**

Santiago, 40  
Tel. 948 58 01 55  
31700 ELIZONDO

Karrika Nagusia, 4  
Tel./Fax 948 45 08 25  
31740 DONEZTEBE

imena@abc.iber.net.com

# Ezkontza errito desberdinak

Mundu osoan dauden erlijio sineskera guzietan bezko ezkontza erritoak dituzte, eta erlijio baten adar desberdinen arabera ere ezkontzetako ohiturak aldatu egiten dira. Bi pertsonen elkartzeko sakratua erlijio bakoitzean nola ospatzen duten ikusiko dugu ondoren:

## Ezkontza kristaua

Erlijio katolikoak ezkontza ospatzeko duen moduari buruz gauza gutti erran daiteke irakurleak ezagutzen ez dituenak. Kristautasunaren barnean, ordea, seguraski ezezagunagoak zaizkigu protestanteen ohiturak, nahiz eta katolizismoarekin antza handia duten. Aipatzekoa da ezkontzaiek elkar onartzeko edo baiezkoa emateko nahi duten formula aukeratzeko ahal dutela. Bertzalde, ezkontdu



**Erlijio hinduan ezkontzak zentzu purifikatzailea du. Astrologiari ikaragarritzko garrantzia ematen diote.**

ondotik senar-emazteetako batek bertze norbaitekin ezkontu nahi badu ez du aitzineko ezkontza deuseztu beharrik.

Kristau ortodoxoen ezkontzetan hiru zenbakiak garrantzi berezia hartzen du, Trinitate Santuaren izenaren: ezkontzaiek hiru aldiz

edaten dute ardo baso kopa batetik, ezkontzaiek hiru aldiz jartzen zaizkie buruan, eraztunak hiru aldiz bedeinkatu eta elkartrukutzen dira... gainera apeza da ezkontzaiek eraztunak hirutan jartzen dizkiena.

## Juduen ezkontzak

Urteko zenbait egunetan ez dago baimendurik ezkontzea, sabbat besta egunetan edo uda ondoko hiru asteetan adibidez. Gai-

 **Hoala eta sukaldea**

**Hegoalde eta Mendebaldera.**

*Ezkontzako eraztunak*



**Migelena  
Anaiak**

- Bitxidenda
- Elektragailuak

Ameztiak karrika, 1 - 5. • 948 450 126 / 677 52





AYLA

nerakoan zenbait errito daude ezkontza baino lehen bete beharrekoak: andregaiak bainu garbitzailea hartu behar du familiako emakumez eta bere lagunez inguratua. Ezkontza egunean emazteari ezartzen zaion eraztuna hatz erakuslean jarriko dio senargaiak, eta ezin izanen du inolako harribitxi apaingarriarik eduki, klase sozialen arteko bereizketarik ez egoteko. Azkenik, *Zazpi Bendeinkapenen* kantua abesten dute eta ezkongaiak ardo kopa bat edaten dute. Senarrak kopa lurrera botata eta egiten diren pusken arabera bikotearen zoriontasun urteak ikusiko dira.

### Ezkontza musulmana

Bertze erlijioekin konparatuta, ezkontza musulma-

na ez da sakramentu bat, poligamia eta dibortzioa onartzen dituen kontratu gisako bat baizik. Koran-ak emakume musulmanei beren erlijioa gizonekin ezkontzea bakarrik baimentzen die, baina gizonek, ordea, emakume judu edo kristau batekin bikotea osatzea onartzen du. Ezkontzako momentuan emaztegaia xuriz jauntzirik eta aurpegia belo batekin estalirik agertzen da, eta zeremonia bukatu arte ez da bere aurpegia ikusi ahal izanen. Koran-aren irakurketa bukatzean fruitu idorrak banatzen dira gonbidatuen artean, ugalkortasun seinale bezala. Gero andregaiaren gurasoen etxean zenbait egunez luzatzen ahal den besta bat ospatzen dute, eta segidan gizongaiaren etxean jarrituko du bestak.

### Hinduen ezkontzak

Erljio honen arabera ezkontzak bertute purifikatzailea du eta horregatik ezkontzaren inguruko erritoguziek espiritualitate handienaren barnean egiten dira. Gurasoek erabakitzen dute seme-alabak norekin ezkondu, musulmanek bezala, eta ezkongaiak ez dira ezkontza egunerarte barkadadean elkarrekin egoten ahal.

Astrologiari ikaragarriko garrantzia ematen diote, eta familiek ezkongaien gutun astrala aztertzea agintzen dute bien arteko izaera elkarretaren ondorioak aurrikusteko. Ezkontzaren eguna ere astroen posizioaren arabera erabakitzen da. Ezkontza ondoko ospakizunek astebete iraun dezakete, eta ehundaka gonbidatu izaten dira. ♦

**AYLA**  
ARGAZKIGINTZA

Tfnoa. eta Faxa: **Bidasoa, 8**  
**948 63 00 75** **BERA**

**YOAN**

**ILEAPAINDEGI MISTOA**  
**ETA**  
**ESTETIKA ZENTROA**

31780 BERA  
948 630 177



**COSAS DE CASA**

Bataio, jaunartze eta ezkontzetarako opariak

Gisa honetako oparietan azkeneko berrikuntzak prezio arras onean!

Zuen zain gaude!

Ordutegia:  
9:30-13:30 eta 16:30-20:00

Elizagibela, 4 • Doneztebe  
**626 894 601**



# ZUBIONDO JATETXEA

350, 160 eta 40 lagunendako  
hiru jangela.

••••

Bazkalondoan nahi bertze  
luzatzeko aukera.

••••

Kotxe eta autobusendako parkinga

•••



Haurrendako  
jolasparkea

•••

Koktelerako  
leku aproposa



**BANKETEA ETA  
KARTA**

Eskatu gure  
ezkontzetako menuak



MUTRIES  
*Telletxea*

Rosa Seminario z/g  
Tfnoa eta faxa: 948 450 258  
DONEZTEBE

*Altzari trinkoetan espezialistak*

**MALERREKA**

# Apirilaren 8an Azkoitia eta Donostiara bidaia antolatu du Ezpelura emakume taldeak

Heldu den urtean, Baserriko Emakumeen V. Topagunea antolatuko du Donezteben

TTIPI-TTAPA

Malerrekako Ezpelura Emakume Elkarteak Azkoitia eta Donostiara bidaia antolatu du igande honetan, apirilak 8. Goizean Azkoitiako Trenbidearen Museo bisitatuko dute eta trenean ibilaldia egingen dute. Bazkaria norbere kabuz egingen dute Donostian. Arratsaldean Donostiako Akuariuma bisitatuko dute. Bidaia nahi duten guzientzako zabalik izanen da eta Ezpeluratik bereziki animatu nahi dituzte Baztan eta Bortzirietako bizilagunak, bidai honetan parte hartzeko. Ezpelurako bazkideek 3.500 pezeta ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek 4.000 pezeta (sarrerak barne). Nafarroako Kutxako Club 10 txartela dutenek 500 pezeta guttiago ordaindu beharko dituzte. Doneztebeko Nafarroako Kutxan eman behar da izena. Bertzal-



**Ezpelura emakume taldeak bere ikastaroekin segitzen du. Jostungintzaren ondotik, areto-dantzekin hasi dira orain.**

Artxibokoa

de, hasia da Ezpelurak Nafarroako Kutxaren laguntzaz antolatutako areto-dantzen ikastaroa. Larunbat arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara bitzen dira Leku-Eder zinemaren. Santi Canales irundarra eta Ana bere emaztea dira irakasleak. Maiatza bitartean ariko dira ikastaroan.

## Baserriko Emakumeen Topagunea antolatuko du Ezpelurak 2002. urtean

Emakume Langilearen Egunaren inguruan ere hainbat ekitaldi antolatu ditu aurreko Ezpelura taldeak. Martxoaren 4an, «*Mujeres con-*

*tra publicidad*» antzeslana eskaini zen zinemaren. Martxoaren 8an, «*Nerabeekin negoziatzen*» solasaldia eskaini zuen Ricardo Ros psikologoak. Gauean aforria izan zuten Belarra jatetxean.

Martxoaren 10ean berriz, Ezpelura elkarrearen ordezkartza Mi-

randa de Argara joan zen, Baserriko Emakumeen IV. Topagunean parte hartuz. Nafarroako emakume elkarte ezberdinetako 427 lagun joan ziren. Dena den, Malerrekako elkarteak betebeharrak berezia zuen Mirandan, heldu den urtean Donezteben egingen baita Topagunea. Antolatetaren lekukoa hartuz joan zen, beraz. Ana Etxeberria lehendakariak, Cristina Ugarte eta Marisol Arraztoa juntakideek, Cederna-Garalur erakundeko Arantxa Arregik eta Begoña Alberro gizarte laguntzaileak hartu zuten lekukoa. Gainera, bertze hamabortz talderekin batera, odolkgileei buruzko murala egin zuten Ezpelurak. Txuribeltzeko argazkiak aurkeztu ziren eta Malerrekakoa omen zen onenetakoa. Ongi antolatutako besta izan zen, bai, baina elkarri emandako berotasuna izan omen zen azpimarragarria.

# Doneztebe-Leitza bidea Aste Santuan irekiko da

Lanak udazkenerako akitzea espero da

TTIPI-TTAPA

Doneztebe eta Leitza lotzen dituen errepidean, Saldias eta Zubieta arteko zatia Aste Santurako irekitzeko asmoa du Nafarroako Gobernuak. Herrilan Departamenduak. Gero, NA-

170 errepide hori hobetzeko eta zabaltzeko lanek segida izanen lukete udazkena bitarte.

Lanen hasieran, errepidea txandaka irekitzen zen, semaforoen bidez, baina joan den urteko uztailean erabat itxi egin zuten. Urrirako ire-

kitzeko asmoa zuten baino segurtasun arrazoiengatik ilbeltzera atzeratu zuten. Baina euriek lur-eroriak eragin zituzten eta orain arte itxia mantendu da Saldias eta Zubieta arteko zati hori. Herrilan Departamendutik adie-



**Lur-eroriak saihesteko hiru paretak egin dira Zubieta eta Saldias bidegurutzearen artean.**

razitakoaren arabera, «*Aste Santurako irekitzeko asmoa dugu, bai-*

*na ez dago hori segurtatzerik, denboraz juxtu xamar baigabiltza*».

**GOIZUETA**

# Azpiroz-Saralegik eginen ditu saneamenduaren lan osagarriak ere

Herri bideen erabilera arautzen duen ordenantza sakoneko aldaketak izanen dira

**ESTEBAN AROTZENA**

Hainbat arazorengatik oraindik hasi gabe baldin badago ere, hilabete mordoxka igaro da herriko saneamendu sarearen osaketa lana Azpiroz-Saralegiri Udalak eman zionetik. Orduko proiektuari «ur-horniketa eta plubialen onra osagarriak» deritzona gehitu zaio orain, eta hau ere enpresa berarentzat izanen da, 15.650.000 pezetako aurrekontuarekin.

## Herri bideen erabilera buruzko ordenantza

Menditatiek materiala ateratzeko herri bideen erabilera arautzen duen ordenantzen aplikazioan sakoneko alda-



Saneamenduko obrak bukatzen direnean errendimendu osoa aterako zaio depuradorari.

ketak jarriko ditu indarrean Udalak hemendik aurrera. Plantazio baten *entresaka* edota *mata-rrasa* egiteko eskaera

Herriko Etxean jasoko duko, mendizaina joanen da neurtzera, eta neurketa horren arabera izanen da or-

daindu beharreko zerga. Prezioa bere hortan mantentzen da, metro kubikoko 125 pezeta alegia. Mendia bukatu-

takoan hilabete bateko epea izanen da zerga hau ordaintzeko.

## Euskararen aldeko ekitaldiei udal dirulaguntza

Nafarroako instituzio nagusiek ez bezala, euskara ardatz duten hainbat ekitaldiri ahal duen neurriko dirulaguntza emanez segitzen du Goizuetako Udalak. Azken plenoan onartu ziren, esate baterako, maiatzaren 6an Senperen ospatuko den Herri Urrats-i 25.000 pezeta ematea; Udako Euskal Unibertsitatean herritarren batek izena emanen balu matrikula ordaintzea; azkenik, Korrika-12ko kilometro bat erostea, 40.000 pezetako laguntza alegia.

**ARESO**

# Kableak etxetik kentzeko ordenantza onartu da

Sokatira taldea Euskal Herriko finaletan ari da

**JUANA MARI SAIZAR**

Udalak ordenantza berria martxan jarri du. Herriko etxe batetik bestera hiru motatako kableak daude, telefonoarena, etxeetara doan argindarrarena eta argiteri publikoarena. Kable hauek bere etxeetatik kendu nahi dituenak, Udaletxean egin behar du eskaera, bakoitzak bere terenoaren barre-

nean postea jarri beharko du eta Udalarentzako inolako gasturik ez da izango. Ordenantza hau behin behinekoa da, suposatzen baita denborarekin instalazio hauei irtenbidea eman beharko zaiola.

## Gas propanoa sartzeko proposamena

Enpresa batek gas propanoa herrian sar-

tzeko proposamena egin du. Interesatuak dauden guziak Udaletxean izena eman beharko du.

## Sokatira taldea Euskal Herriko finaletan

Asteburu honetan 600 kiloko finalean hartu du parte sokatira taldeak. Apirilaren 7an 560ko finala izanen da Usurbilen eta 8an 640 kilokoa Abadiñon.



## Korrika Txikian aterako da eskola

Ostiral honetan, apirilaren 6an, arratsaldeko 5etan, Korrika Txikia egingo da herrian. Kilometroa erosi du Aresoko eskolak eta eskolako umeek, gurasoek eta gazteek hartuko dute parte. Izan ere, kilometroa eskolak hartua izanagatik, edozeinek hartu dezake parte, irakasleek adierazi dutenez.



# Euskararen egoera aztertzeko mahaingurua egingen da ostiralean zineman

Sarriopapeleko langileek greba egunak izan dituzte aste hauetan

JOSEBA AZPIROZ

Herriko hainbat talde, elkarte, partidu, asoziazio, etab. (hogeitik gora) biltzen ari dira euskararen egoeraren inguruan hitz egin eta ekimen zehatzak burutzeko. Iruñean egin zen Nafarroako Gobernua-ren Dekretuaren aurkako manifestaziorako autobusak jartzea edo martxoaren 23ko manifestazioa konbokatzea talde honen erabakiak izan dira. Azken manifestazio honetan, Areso eta Leitza 500 lagun bildu ziren.

Ildo berean proposamen berri bat egin dute: Apirilaren 6an, ostirala, arratsaldeko 7:30etan, zineman, leitzarren arteko mahainguru bat antolatu dute. Bertan hainbat kolektibo ordezkatuak egonen dira (eskolak, eliza, osasun etxea, udala, gurasoen elkarteak, kazetariak, gazteak, kirolariak, euskaltegia, jubilatuek, irratia, kultur taldeak, etab.) eta euskarak garai ezberdinetan izan dituen egoera ezberdinak analizatzeaz gain, gaur egun euskaraz bizitzea posible ote den eztabaidatu dute.

Mahai-ingurua giro baikor eta alai batean joan dadin, hasiera eta



Martxoaren 23an «Euskara guztion eskubidea» lemapean egin zen manifestazioan bostehun bat leitzar eta aresoar bildu ziren.

Argazkia: Mikel Ilarregi

bukaeran kanta batzuk abestuko dira eta bertaraten denak ere, abesteko aukera izanen du.

## Grebak Sarriopapel lantegian

465 langile enplegatzan dituen Sarriopapel y Celulosa SA lantegian greba egunak izan dituzte martxoaren 28an eta apirilaren 3 eta 4an. Enpresa Batzordeak deitu ditu greba egun hauek presio neurri bezala, hitzarmen berria negoziatzan ari baita. Enpresa Batzordetik adierazitakoaren arabera, «lehen egunean geldialdia erabatekoa izan da produkzioan eta gutxieneko zerbitzuak eman dira manteni-

*mendu lanetan».* Enpresa Batzordearen ustez, «duela hamar urte baino 300 langile gutxiago izan arren, lanerritmoa handitu egin da eta, ondorioz, produkzio gehiago egiten da. Egia da teknologia hobetu dela, baina langileen mugikortasuna eta ardura maila gero eta handiagoa da. Lantegiak hori guziaz kontuan hartu behar du eta eskaintza hobek egin».

Batzordeak, soldata urtean IPCaren igoera baino 1,75 puntu gehiago igotzea eskatzen du. Lantegiak, aldiz, lehen urtean 0,8 puntu gehiago eta hurrengoetan 1,25 eskaini du. Batzordeak

urtean 28 lanordu gutxiago egitea ere eskatu du eta lantegiaren azken eskaintza 8 ordu gutxiago proposatu du. Mobilizazioekin segituko dutela adierazi dute Enpresa batzordetik.

## Asketa abesbatzakoak Ejea de los Caballerosen ariko dira kantari

Leitza Asketa Abesbatzak Aragoiko Ejea de los Caballeros-eko abesbatzen topaketan abestuko du, Euskal Herriko Abesbatzen Federazioak horretarako bereizi ondoren. Asketakoak gonbidatu bezala joanen dira eta ez dute txapelketan parte hartuko.

## flash

### Bermeo-Sara-Leitza euskaltzaleen topaketak

Matxoaren 24 eta 25eko astebukaeran Leitza, Bermeo, Sara eta Leitza euskara eta kultur taldeak antolatutako ekitaldietan izandako partehartzearekin eta giroarekin oso pozik azaldu dira antolatzaileak.

### Herri Krosa igandean

Aurrera Kirol Elkarteak antolatu ohi duen herri krosa, igande honetan, apirilaren 8an izanen da.

### Garapen proiektua laguntzeko enkantea

Sara Largo eta Jokin Zabaletarekin katekesira joaten den 13 eta 14 urteko neska-mutiko taldeak kirol materialaren enkantea antolatu du, garapen proiektu bat laguntzeko. Asier Olaizola, Koteto Ezkurra edo Mikel Unanuek emandako kamisetak eta pilotak jarri zituzten enkantean eta Karrape Irratian egin ziren eskaintzak.

**ttipi-ttapa internet**  
<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>  
 E-mail: [ttipi-ttapa@topagunea.com](mailto:ttipi-ttapa@topagunea.com)

**BULDAIN**  
**agentzia inmobiliarioa**  
 Amazabal 37 (eskola ondoan) • LEITZA (Nafarroa)  
 ☎ 948 510534 / 649 476615

**BAZTAN**

# Enpresa baten simulazioa egin dute Elizondoko Institutuko ikasleek

Irakaskuntza modu hau erabili duen Nafarroako lehen ikastetxea da

TTIPI-TTAPA

Cederna-Garalur elkartearen ekimenez Baztan Likoreak enpresaren simulazioa egin dute Elizondoko Bigarren Hezkuntza Institutuko ikasle batzuk. Nahiz eta European edo Katalunyan urte aunitzetan Formakuntza Arautuan erabili izan den, Elizondoko Institutua izan da simulazio metodologia irakaskuntza teknika berri hau garatzeko apostua egin duen Nafarroako lehenengo ikastetxea.

Simulazio programa Administrazio arloko goi-mailako prestakuntza zikloan garatzen ari dira. Ikasle hauek ikasturteko lehen bi hiru hileroan parte hartu dute eta goi-mailako zikloko lehen mailako ikas-

leek, berriz, ikasturteko azken hiruhileroan hartuko dute parte, bigarren mailako ikasleek enpresa errealean prestakuntza praktikoa hasiko duten uanean.

Programaren lehen-dabiziko zatian hamabi ikasle hartu dute parte. Apiriletik aitzinera bertze ikasle talde bategi ordezkatuko ditu Baztan Likoreak enpresa simulatuko ekimenean. Formakuntza zentroak egiazko bulego baten itxura du, ohiko sail ezberdinetan banatua eta beharrezko ekipamendu osagarriekin (ordenagailua, telefonoa, faxa...).

Irakasleen ustez, metodologia honekin ikasleek motibazio berezia erakusten dute eta lanarekiko jarrera positiboak sustatzen dira.



## Asteburu mugitua Baztan Ikastolan

Otsaileko azken asteburua arras mugitua izan zen Baztan Ikastolan. Otsailaren 24an, larunbata, herriak eskainitako aukera aprobetxatuz Oteizaren erakusketa ikustera joan ziren (eskuineko argazkian). Ekitaldia arrotz gustokoa suertatu zitzaizen eta haurrek erran zutenek, denbora gutxiago izan zuten museoak antolatutako ekintza desberdinak burutzeko. Arratsaldean, Oinarriak erakundeak deitutako manifestaldian parte hartu zuten. Biharamonean, euriari aurre eginez Zuhaitz Eguna ospatu zuten Ermitegi inguruan, ehun zuhaitz landatuz. Ikastolak antolatzen dituen mendi ateraldien barnean zegoenez, partaide gehienak oinez joan ziren.



## Iratxe kontsumitzaile elkarteak 91 kontsulta aztertu zituen iaz

Iratxe kontsumitzaile elkarteak 91 kontsulta aztertu zituen iaz Elizondoko bulegoan, Mikel Bezunartea ardura-dunak jakinarazi due-

nez. Gehienak, etxebizitzaren salerosketarekin eta errentarekin zerikusia zutenak izan ziren.

## Ordoki industrialdeko partzela guziak saldu ditu Udalak

Arizkunera erakitzen ari den Ordoki indus-

trialdeko partzela guziak saldu ditu Balleko Udalak. Urbanizazio lanak akituak daude eta industrialdean sartzeko errotonda egin da. Orain, nabeak eraikitzea falta da. Denak enpresa eta tailer tailak izanen dira, 1.000 eta 2.000 metro koadro artekoak.

## MAGNETOTERAPIA NATUROPATIA

### ONDORIOETATIK INDARTZEKO:

- Diabetia
- Asma
- Buruko mina
- Oinen izerdia
- Larru azaleko alergia
- Zizareak
- Prostata, etab...

### IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

### GIHARRE ARAZOAK

- Bixkortzea
- Artritia, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

### KONTSULTA ORDUTEGIA

Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldeaz 2-7etara. Ordua eskatu

San Marcial, 7-4 IRUN



## ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • ☎ 948 580 562 IRURITA





Eskuararen ofizialtasuna aldarrikatuz agerpen publikoa egin dute herriko hainbat elkarte.

Argazkia: Foto Mena

# Eskuararen ofizialtasuna eskatzen ari dira talde eta elkarte aunitz

Apirilaren 28an herri itzulia egingen da Elizondon

**TTIPI-TTAPA**

«Eskuararen herrian, eskuara ofiziala» goiburuean Oinarriak erakundeak hainbat ekitaldi plantatu ditu baztanen eta herriko hainbat talde eta elkareren babesarekin. Gan den larunbatean, martxoak 31, jardunaldi eguna izan zen Elizondon eta egun osoan ekitaldiak egingo dira. Apirilaren 21ean, autokarabana ibiliko da herriz herri eta apirilaren 28an, arratsaldeko 5,30etan, Elizondoko plazatik herri itzulia abiatuko da. Oinarriak erakundearen deia, honako taldeek adierazi diote beraien atxikimendua:

Doike Eskuara Taldea, AEK, Jo ala Jo Kultur elkarte, Xorroxin irratia, Xaloe telebista, Baztandarren Biltzerra, Baztan Ikastola, San Frantzisko Xabier Ikastetxeko irakasle eta Gurasoak, Lanbide Eskolako irakasleak, Lekarozko Bigarren Hezkuntzako Institutua eta gurasoak, Baztango Herriko Eskolak, Baztango Dantzariak, Erratzuko Kultur elkarte, Txaruta Pilota Elkarte, Lekarozko Irakasle Laguntza Zentroa, Arizkongo Elkartasuna elkartea, Arizkongo San Juan Bautista guraso elkarte, Irurritako guraso elkarte, Eguzki Lore elkarte, Erratzuko Er-

tzuin guraso elkarte, Erratzuko Etxeleberteko Txokoa elkarte, Oronozko Gaztelune elkarte, Baztango Kirol Taldea, Azpilkuetako Herri-arte elkarte, Irurritako Gazteak, Berroetako Gure ametsa elkarte, Zigako elkarte, Zigako gazteak, Oronozko Guraso elkarte, Iturri Eder elkarte, Berroetako Hegoaldea elkarte, Anizko gazteak, Anizko Mendiarte elkarte, Elizondoko Abesbatza, Laxoa Elkarte, Baztango Ihizilari eta Arrantzaleen elkarte eta Apezak.

**Kontzertuak etxekoekin**  
Elizondoko Arizku-

nenea Kultur Etxean «Kontzertuak Etxekoekin» zikloaren barnean Sequenza klarinete laukoteak «El clarinete» emanaldiaren aurkeztuak izango dira. Aitzineko bertan, apirilak 8, 19 eta 26ko 6etatik 8etara izango dira kontzertuak.

**Astobizker eta Legargorri inguruetan...**

oihanberri-tze proiektuaren mantentzeko lanak Igantziko Etxarte, S.L. enpresak egin ditu. Hektareko 45.000 inguruko eremua (gaur BEZa).

*Personaiak*

**Hiru kiloko amoarraina arrantza denboraldia hasteko**

Ez du Nolanahi hasi arrantza denboraldia Eneko Karrikaburu arraioztarrak, lehendabiziko egunean 2,930 kiloko pisua eta 65 zentimetroko luzera zuen amoarraina arrantzatu baitzuen. Hamalau urte daramazki arrantzan eta inoiz atera duen handiena omen da. Arraiozen berean atera zuen amoarraina zizarearekin, ordu laurden bateko borroka eta errekan beheti hirutan hogeita metro gan ondolik. Bertze bi amoarrain atera omen zituen gero, tailagoak noski. Enekok erran duenez, nahiago du udan arrantza egin, baina igande horretan txirrinta kentzeko gan zen errekarra.



**Eneko Karrikaburu**

**Carlos Garaikoetxea Etxenike**

abokatu • aseguru orokorrak

© 948 581468 • 948 580433 (etxekoa)

Frantziarako etorb. 12 • Amezialde 3B • ELBETE

**MENDI OSTATUA**

Santiago 25 - © 948 580313  
ELIZONDO

**MENDIALDE Jatetxea**



AMAIUR • © 948453060



**JATETXEA**  
© 948 580101  
Santiago 1  
ELIZONDO





**SARA**

# Idazleen Biltzarra iraganen da aurten ere Bazko Astelehenez

Euskal literaturari buruzko mintzaldia eskainiko da

ANA MARI ETA FRED

Urtero Bazko Astelehenez egiten den bezala, Euskal Herriko Idazleen Biltzarra iraganen da aurten ere. Apirilaren 16an, beraz, idazleekin bainan ere musika edo berdin bideo egileekin momentu goxo baten pasatzeko parada izanen da herriko kiroldegian, bakoitzak bere azken ekoizpenaren berri emanen duelarik. XVIII. edizio huntan ere erakusketek beren tokia izanen dute; horien artean Euskal Kultur Erakundeak apailatu «Irudiak kantari» disko azalez osaturikoa ikusten ahalko da.

Bertzalde, ohi duen bezala, Eusko Ikaskuntzak ikerketa lan batzuen sustatzeko dirulaguntzak banatuko ditu. Eguna bururatzeko, Ur

Apalategi Idirin idazleak mintzaldia eskainiko du «Bernardo Atxaga eta euskal literaturaren arazoa» gaiaren inguruan.

## Herriko Etxeko edantegiko mus txapelketa

Martxoaren 17an, Herriko Etxeko edantegiko mus lehiaketa bururatu zen. Goi mailan, txapelak Jean Marc Aspirot eta Mixel Etxeberri atera ziren. Joan den urtean bildotsarekin sartu baldin baziren etxerat aurtengoan sari nagusia, lau lagunentzako aste beteko egonaldia Salou herrian eskuratu dute. Maila berean bigarren Myriam Lamothe eta Rosine Saint Martin, hirugarren Pantxo Delpech eta Mattin Jorajuria, laugarren Kako Goietxe eta Jean Marie Pradere.



Herriko Etxeko edantegiko mus txapelketako finaleran aritu zirenak, Maixan eta Veronique ostalariekin batera.

Bigarren mailan Jerome Barrenetxe eta Christophe Pradinek eraman zuten bildotsa Stéphane Agerre eta Marie Pierre Iribarreni irabaziz.

Hirugarren mailan Sandrine Gelosek eta Franck Balerdi irabazle ateri ziren.

Finalen ondotik, ohitura den bezala, 50 lagun bildu ziren bazkaltzeko. Jose Angel musikari baztandarra horzen ere, zikiro ondoko tenoreak girtzeko.

## Plekako berriak

Larunbat huntan, apirilaren 7an, Pleka trinketeko pala txapelketa bururatuko da. Partidak goizeko 9etan hasi beharrak dira eta eguerdi aldeko maila guzien fi-

nalak jokatuak izan dira, gero aperitifa eta zikiroa antolatu baitira.

Pala utzi eta pilotazale aunitzek esku huskako xoko lehiaketa parte hartuko dute urtero bezala, izenak jada ematen ahal dira.

## Denboraldiko azken derbia

Gure errugbilariek denboraldi huntako azken derbia jokatu zuten martxoaren 25ean Animaniako zelaian Azkaineren aurka, eta indar guziak eman baldin badituzte ere, basurdeek galdu behar izan dute 19 eta 28. Beharrik bigarren taldea hor dugun, azken aldi bezala oraingoan ere berak baitu emaitza baikorra erdietsi, 23 eta 7 iraba-

ziz. Dena dela, sufritzeko gutti falta da, azken neurketa apirilaren 1ean jokatu beharra baitzuten, ongi merezitako atsedenaldia hartu aitzin.

## Imanol eta Kottori elkartasuna

Joan den martxoaren 23an Beran gertatu atxiloteten ondorioz, Sarako Gaztetxeak eta TTIPI-TTAPAK goraiatu nahi dugu Imanolek eta Kottok bereziki gure bi herrien arteko kultura harremanen indartzeko egin duten lana (Zirimolan kultur taldean parte hartuz, bertzeak bertze) eta bide batez egoera gogor honetan gure sustengua erakutsi nahi diegu, baita beren familia eta lagun guzieren ere.

Okindegia Jatetxea

# Uxoa

Plaza, 104 48004 • TEL: 948 41 34 05 • 0115 00 00 00

- Okindegian
- Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
- Jatetxean
- Menua eta karta (asteburuetan)
- Espezialitate parrilan erretako jakietan

Enkargatuz gero,  
bildotsa ogi-labean errea.  
Goxo-goxoa!

## ONASKA

### ERRETEGIA

Euskal sukaldaritza  
Arrain eta haragia brasan

Bagordiko bidean • ELBETE  
© 948 45 20 88

BERRIKO  
ETXEKO  
EDANTEGIA

Mugatu eta...  
...

ttipi-ttapa  
internet

http://www.topagunea.com/ttipi-ttapa  
E-mail: ttipi-ttapa@topagunea.com

**EZKONTZAK**

**Felix Etxeberria Arrospide** eta **Maria Jesus Bengoetxea Erasun**, Albistur eta Beintza-Labaiengoa, Etxalarren, martxoaren 17an.

**JAIOTZAK**

**Saioa Igoa Arrieta**, Zigakoa, martxoaren 12an.

**Narrea Zugarramurdi Zubieta**, Goizuetakoa, martxoaren 12an.

**Eider Loiarde Cabezas**, Berakoa, martxoaren 4an.

**Ane Etxenike Apestegia**, Berakoa, martxoaren 10ean.

**Josu Iparragirre Igoa**, Berakoa, martxoaren 16an.

**Joane Etxegarai Taberna**, Berakoa, martxoaren 19an.

**Zaira Gaztelumendi Jorajuria**, Sunbillakoa, martxoaren 15ean.

**HERIOTZAK**

**Tomas Ondikol Santesteban**, Elizondokoa, otsailaren 5ean, 68 urte.

**Elena Micaela Iturralde Barberena**, Elbetekoa, martxoaren 13an, 87 urte.

**Jose Perfecto Irungarai Bikondoa**, Erratzukoa, martxoaren 15ean, 74 urte.

**Juan Bautista Arretxea Ariztia**, Gartzaingoa, martxoaren 15ean, 86 urte.

**Maria Luisa Iturralde Arratxe**, Oronoz-Mugairikoa, martxoaren 21ean, 81 urte.

**Jose Ignacio Arbelaitz Rivera**, Beran, martxoaren 25ean, 92 urte.

**Josefa Igoa Zapirain**, Beran, martxoaren 26an, 83 urte.

**Miguel Goienetxe Hardoi**, Zugarramurdikoa, martxoaren 18an, 53 urte.



**BAZTAN FUNERARIA**

**ORAIN TANATORIO ZERBITZUA**

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA

EHORZKETA ZERBITZUAK • TRASLADOAK

Menditurri, 1 • ELIZONDO • © 948 580373 • 608 776176

**FUNERARIA ZERBITZUAK**

**Lesaka-Donoztebe**



**MALDAERREKA, S.L.**

24 ordutako zerbitzua

Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak

Tfnoa: 948637404 • LESAKA

Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

**ESKELAK**

eta

**URTEMUGA**

**OROIGARRIAK**



**TTIPI-TTAPA TELEBISTA eta ALDIZKARIAN**



**948 63 11 88**

## DATUAK.....

1 Gorka Retegi Berako atzelariak hogei urte bete zituen otsailaren 27an.

2 Hiru urterako kontratu profesionala sinatu du Garfe enpresarekin eta martxoaren 24an egin du debuta Sunbillan, Iban Etxanizekin bikote eginez.

3 Retegi VII izena eramanen du kamisetan, baina horrek ez dio kezkarik sortzen.

«Bakoitzak bere maila du eta bere bidea egin behar du».

4 Afizionatu mailan Gure Txokoarekin aritzen zenean bezala, pilota Gasteizen egiten ari den Historia ikasketekin uztartuko du.

**✎ Gorka RETEGI** Berako pilotaria

## “Ezker-eskuin kolpe polita dut, baina oraindik segurtasuna falta zait”

Martxoaren 24an Sunbillan jokatu zuen partidarekin egin zuen debuta profesionalean Gorka Retegi –Retegi VII– Berako pilotariak. Lehen partida horretan Iban Etxaniz izan zuen bikotekide eta aisa irabazi zieten Haritz eta Alberdi III. ari, 22 eta 8. Gorkak urduri hasi zuen partida, baina pixkanaka profesionalean eskaintzen ahal duena erakutsi zuen, ezker-eskuin ongi mugitu baitzuen pilota eta defentsan ederki aritu zen. Garfe enpresak hiru urterako kontratua eskaini dio atzelariari. «Asperekin entrenatzen afizionatu aunitz ari ginen. Aukerak bagenituela erraten ziguten, baina 15 pilotaritik 3 hartu dituzte. Beraien gustokoa izan naiz, nonbait, eta aitzinera!» Izan ere, Garfe enpresa berezia bezala hasi zen, baina gaur egun Asperen filiala da. «Elkarrekin daude gauza guzietarako –dio Retegik– eta Garfen ongi ibiliz gero, Aspek ba-

du aukera pilotaria hartzeko». Partida aunitz Erribera eta Errioxan antolatzen ditu enpresa honek, baina bidaiatzeko ez du kezkatzen Gorka: «Rafa Errandonea aranztarra ere Garfen dago eta Aspeko 2. mailakoak, Almandoz, Atxa eta konpainia ere Garfe-koekin aritzen dira aunitz. Elkarrekin joanda arinagoak dira bidaiak».

### «RETEGI ABIZENA IZATEAZ HARRO NAGO»

Pilotan hainbat txapel eta sari lortu dituen Retegi abizena eramateak ere ez du kezkatzen Gorka: «Ni Retegi izateaz harro nago, baina ahal dudana egingen dut eta kitto. Nere pilotari maila izanen dut eta ez naiz konparatuko bertze Retegirekin». Eratsundarrekin abize-na bertze harremanik ez badu ere, etxean, aita profesionala izana da, Retegi III. Gainera, pilota irakaslea ere izana du Gorkak. Profesionalerako aholkuak ere

► **“Nire aurrelariak dakien hura egitea gustatzen zait. Errematatzailea bada, pilota duenean errematatzea eta pilotari abiadura ematen badio, lasai sartu eta jotzea.”**



«Atzelari jotzaileak dira min gehien egiten didatenak, denei bezala».

eman dizkio: «Beti gauza beretsua erraten dit, lasai aritzeko eta ahal dena egiteko. Aunitz urtez bera izan da nire aholkularia, partidu guzietara joaten da eta aunitz daki: hogei urtez profesionala izan da eta irakasle ona izan da». Berak ez du horrenbertze urtetan aritzeko helbururik. «Momentuz, hiru urte hauetan ahalik eta hobekien aritu, ea Aspekoak neretan fijasen diren».

Atzelari jotzailea da Retegi VII: «ezker-eskuin kolpe fuertea dut, baina segurtasuna fal-

tazait, baita pilotari bezala egitea ere, nahiko berde nago oraindik». Banaka ere gustora aritzen da, mobilidade dexentea duelako, baina nahiago du binaka aritu, horretan entrenatzen baitu gehien. Beloki da gehien gustatzen zaion atzelaria, «berak bakarrik partidua aitzinera ateratzeko ahalmena du, binakako txapelketan ikusi den bezala». Aitzinean, «Mikel Goñi perfektua da teknikoki, Titinek egiten dituen tantoak eta Unanueren gantxoak ere gustatzen zaizkit».



# Elizondoko Goizalde Ostatuak irabazi du Baztan-Bidasoako IX. futbito txapelketa

- Elizondoko taldeak 5-2 irabazi zion Doneztebeko Titi Ostatuari
- Hirugarren postua Lesakako Haizegoa Ostatuak lortu zuen

A.A.

Elizondoko Goizalde Ostatuak 5 eta 2 irabazi zion martxoaren 25ean Doneztebeko Titi Ostatuari, Baztan-Errekako bederatzigarren futbito txapelketaren finalean. Doneztebarrek azkeneko hiru txapelketak irabaziak zituzten, baina Doneztebeko kiroldegian jokatu den lehendabiziko final honetan ezinean aritu ziren eta baztandarrek ongi nagusitu ziren. Lehendabiziko zatia nahiko berdindua jokatu zuten eta binako berdinketarekin ailegatu ziren atsedenaldira. Beraz, bigarren zatirako kontuak ez zeuden batere garbi eta kiroldegiko harmailak betetzen zituzten ikusleek ez zuten faborito argirik. Baina lehen zatian gertatu bezala, bigarren zatia hasi eta abudo, aitzinetik paratu ziren baztandarrek, finaleko jokalaria onena izendatu zuten Iparragirrenen gol batekin. Hor ailegatu ziren baztandarren momenturik onenak eta bertze bi golekin erabakia utzi zuten partida. Aurtengo txapeliduna, beraz, Elizondoko Goizalde Ostatuak izan da eta Titi Ostatuak azpitxapelidun.

Aitzinetik, hirugarren eta laugarren posturako norgehiagoka jokatu zen eta hemen Lesakako Haizegoa Ostatuak aisa gailendu zitzaion Elizondoko Txokoto Ostatuari, 6-0. Bi partida hauek jokatu on-



Goizalde Ostatuak, IX. futbito txapelketako irabazleak. Argazkia: Foto Zaldua

dotik, sari banaketaren txanda ailegatu zen. Lau lehendabiziko taldeek beraien sariak jaso zituzten. Kiroltasunaren saria Doneztebeko Hamabi Ostatuak eskura-

tu zuen eta afiziorik onenari emandakoa, Erratzuko Zubipunta Ostatuak. Bakarka ematen diren sariak ere banatu ziren. Atezainik onena, Sunbillako Fonda Os-

tatuko Manuel Merino izan da, jokalaria onena Basaburuako Asier Maritorea eta finaleko jokalaria onena, Goizalde Ostatuak Xabier Iparragirre.

## Txapelketako selekzioa eta finalistak Ohorezko Mailan ari den MRA-Xota taldearen kontra neurtuko dira

Baztan-Bidasoako futbito txapelketa antolatzen duen Erreka elkarteak 25. urteurrena ospatzen ari da aurtengoan. Saskibaloia, eskubaloia eta datozen aldizkarietan xeheago aipatuko ditugun bertze kirol ekitaldiekin batera, maiatzean, lau talderen artean jokatu den areto-futboleko txapelketa antolatu du.

Honela, Espainiako areto-futboleko Ohorezko Mailan ari den Nafarroako ordezkari bakarra, Irurtzungo MRA-Xota taldea gonbidatu dute. Talde honekin batera, aurtengo txapelketan finalista izan diren Elizondoko Goizalde Ostatuak eta Doneztebeko Titi Ostatuak ariko dira, baita an-

tolatzaileek beraiek aukeratutako txapelketako selekzioa ere. Honako hamar jokalaria hauek hautatu dituzte partida horretan aritzeko:

Atezainak: Fonda Ostatuak Manuel Merino eta Haizegoa Ostatuak Matias Telletxea.

Jokalariak: Basaburuako Asier Maritorea, Aparaneko Mikel Ibarra eta Jon Maritxalar, Arraiozko Bautista Agerberere, Zubipunta Ostatuak Peio Apezetxea, Fonda Ostatuak Santi Manterola eta Joseba Bendoiro eta Haizegoa ostatuak Sabino Gomez.

Sari ederra izanen da txapelketa honetan nabarmendu diren kirolariendako.



### ❖ Aurtizko pilota txapelketa

Martxoaren 25ean jokatu zen Aurtizko Koianea Ttikia pilotalekuan Aurtizko Ostatuak laugarren urtez antolatutako eskuz binakako txapelketaren finala. Berako Retegi eta Olazabalek 22 eta 14 irabazi zieten Lesakako Matxitene eta Makatzeneri. Hirugarren posturako lehian, Agesta eta Errandonea arantzarek 22 eta 21 irabazi zieten Altzugarai eta Ordokiri.

### ❖ Iñaki Perurena

harri jasotzaille leitzarrak 1.313 jasoaldi eman zizkion ehun kiloko harri zilandroari, martxoaren 24an Leitza egindako saioan. Sei ordu, 22 minutu eta 49 segundu behar izan zituen marka egiteko. Aurrez, zazpi aldiz altxatu zuen 200 kiloko errekangularra, 3 minutu eta 51 segundutan.

### ❖ Abel Barriola

pilotari leitzarrak hasiera ezin hobea eman dio eskuz banakako txapelketari. Lehen partidaren hiru tantutan utzi zuen Esain eta bigarrenaren lau tantutan Zearra. Banaka aritzeko dohain berezia erakutsi du Abelek.

## AGENDA EGUNEZ EGUN

### IKASTAROK

#### DONAMARIA

##### ► Apirilaren 17tik

**19ra** Zerbitzari eta tabernari ikastaroa. Udako jende kualifikatua prestatzeko ikastaroa, Bertizko Partzuegoak eta Bitarteren ekimenez. Izena emateko deitu 619 829 289 telefonora. Dohainik da. Oharra: Leitzan ere eginen da, baina datak konfirmatu gabe daude oraindik. Informazioa Plazaolan.

### BIDAIAK

#### MALERREKA

##### ► Apirilaren 8an

Azkoitia eta Donostiara bidaiara antolatatu du Ezpelura emakume taldeak.

### BILTZARRAK

#### SARA

##### ► Apirilaren 16an

Euskal Herriko Idazleen Biltzarra, urtero bezala Bazko Astelehenez egiten da Sarako kiroldegian. EKEren «Irudiak kantari» diska azalez osatutako erakusketa eta Ur Apalategiren «Bernardo Atxaga eta euskal literaturaren arazoa» mintzaldia izanen dira, beritzeak bertze.

### ZINEMA

#### LEITZA

##### ► Apirilaren 6an

«Ni uno menos», 22,30etan.

##### ► Apirilaren 8an

«Ni uno menos», 19,30etan.

### TELEBISTAKO TXOKOA



## Korrika 12 badator

Joan den ortzegunean abiatu zen Korrika Gasteiztik bainan heldu den apirilaren 7a bitarte ez zaigu sobera hurbiletik ibiliko. Dena den, motorrak berotzen joateko TTPI-TTAPA TELEBISTAN egunero emanen dizuegu euskarenen lasterketa honen berri zehatza.

Ez pentsa ordea, gure tramakulu guziak besotan hartu eta Euskal Herri guzira laisterka guruzten hasiko garenik. Ez, TTPI-TTAPA ALDIZKARIKO irakurleentzat aski ezaguna den Franck Dolosor senperraren laguntza paregabea izanen dugu horretarako. Berak, egunero-egunero, etenik gabeko lasterketa honetan gertatutakoa kontatuko digu telefono bidez, korrikak bidean aurkitzen ahal dituen anekdota eta xeblekeri guziak bilduz.

Bidenabar, egunean eguneko ibilbidea eta biharamuneko zein den ere azalduko digu Lapurdiko kazetariak.

Konexio hauek, egunero albistegiaren barrenean egiten ditugu.



### BASERRIA



#### ❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (19 kilo): 10.000 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 254 pta./k.
- **Zerramak**: 160/170 pta./kiloa, bizirik.



#### ❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak** 200/250 k.
- **Idixkoak/Urruxak**: Pta./kg. Kanala Extra . . . . .405-415
- 1.koa . . . . .385-395
- 2.koa . . . . .365-375

- **Aretze gizenak** 320 kilotik goiti
- **Idixkoak/Urruxak**: Pta./kg. Kanala Extra . . . . .400-410
- 1.koa . . . . .380-390
- 2.koa . . . . .360-370

#### • Aretze tikiak

(15 egun inguruokak):

**Nabarrak**: urruxak 20.000-22.000 eta idixkoak 31.000-33.000 Pta.

**Mestizoak**: urruxak 20.000-22.000 eta idixkoak 32.000-34.000 Pta.

#### Zaldikoak:

Sortuberriak: 535-545 Pta./Kg.

Zaldi eta behorrak: 355-365 Pta./Kg.

#### Bildotsak:

6-8 kilokoa . . . . .900-950

8-10 kilokoa . . . . .775-825

DATUAK: NAFARROAKO GOBERNUA

### DISKAK



«Arrazoiak»

PETTI

GAZTELUPEKO HOTSAK

Pettiren lehen diskoa beltza baldin bazen, soinu eta izaeraz, xuriz jauntzia heldu zaigu bigarren hau. Disko akustikoa grabatu du Berako bakarlariak, lasaia eta intimista. Hitzek ere pisu handia dute Pettiren lanean, izan ere, lehenik hitzak sortu eta gero musika jartzen dizkien musikari bakanetakoa baita beratarra. Dena den, berak egindako letretaz gain bere lankide lehiala den Beñardo

Goietxerenak ere sartu ditu, baita Andoni Tolosa «Morau» bakarlariarenak eta Fernando Pessoa idazle portugaldarrenak ere.

Musikari dagokionez, Bingen Mendizabal bezalako musikari handien laguntza izan du instrumentu gehigarriak grabatzeko orduan.

Bi hitzetan erateko, kanpoan euria ari duenean goxo-goxo aditzeko diska da «Arrazoiak».

# Kalte psikologikoak

**Zenbat aldiz aditu ditugu azken boladan senar edo bikoteak jo edo hil dituzten emakumeen kasuak? Auniztan, dudarik gabe.**

Tratu txarrak egunero gertatzen dira eta, zorionez, gero eta gehiago dira gertakari hauek salatzen dituzten emakumeak. Baina ez nahiz tratu txar fisikoez solastuko, tratu txar psikologikoez baizik, bertzeak baino finagoak, ixilagoak, eta ia ikustezinak direnak.

Nola jakin daiteke gisa honetako tratu txarrak jasotzen ari diren? Pertsona hauek autoestimaren jauntsiera izaten dute, "deusez" sentitzen dira, harremanak izateko gaitasuna galtzen dute. Pertsona aunitzek merezi dutela ere pentsatzen dute, horren gauza gutti direla uste dute non deus hoberik ez duten merezi eta ez dute deus egiten hori moldatzeko.

### Zeri deitzen zaio tratu txar psikologikoa?

Iraintzeari, segika ibiltzeari, umiliatzeari, etxetik kanpo lan egitea edo lagunak izatea ukatzeari, mehatxatzeari,



Emakumea isolatzea izaten da tratu txar psikologikoren ondorioa.

hitzik ez egiteari, ikaratzeari, gutxiesteari...

### Tratu txarrak ematen dituztenen soslaia

Autoestima gutti izaten du, horrek frustrazioa eragiten dio eta edozein "akatsengatik" (janaria bere orduan prest ez izatea) zakar jartzen da.

Emakumea isolatzea da bere arma, bere afizio eta lagunetatik urruntzea... eta gero eta gehiago bere menpe

egotea, bai emozionalki bai ekonomikoki.

### Zeri deitzen zaio tratu txar psikologikoa?

Errexa da erratea, bainan ez egitea: SALATZEA. Pertsona horretaz eta egoera horren kaltegarriaz urrundu behar da. Ezin baduzu bakarrik egin lagun edo senide bati aipatu, edo gainerakoan aditurren bati: zure herriko gizarte langilea, psikologoa, emakume elkartekoak. Batez ere EZ IZAN BELDURRIK, irainak eta bazterketa baino hoberik merezi duzula pentsa ezazu.

**RAKEL AMIGO**

BORTZIRIETAKO GIZARTE ZERBITZUA

*Pertsona hauek*

*autoestimaren jauntsiera*

*izaten dute, deusez*

*sentitzen dira.*

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## KONTZERTUAK

### ELIZONDO

► **Apirilaren 6an** "Obligaciones". Kasino ostatuan.

► **Apirilaren 8an** Sequenza laukotearen «El arte del Clarinete». emanaldia Arizkunenea Kultur Etxean, arratsaldeko 6etan. Kontzertuak Etxekoekin zikloa.

## ETXALAR

► **Apirilaren 7an** "Pablo Liquido", "2x2" taldeko kide ohia. Herriko Ostatuan, arratseko 10etan.

## BERA

► **Apirilaren 7an** Petti eta Ruper Ordorika, Kultur Etxean, arratseko 10etatik aitzinera. Korrika Kulturalaren barnean. Sarrerak Lesakako Kattu ostatuan eta Berako Errekalden. 1.200 pta.

## ARANTZA

► **Apirilaren 7an** Jon Bergaretxe, Zahar Txokon, arratseko 8,30etan. Korrika Kulturalaren barnean.

## GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tfpora. deitu behar da

► **Apirilaren 2tik 8ra** Bera, Narbarte, Elizondo (Iturralde), eta Goizueta.

► **Apirilaren 9tik 15era** Lesaka, Doneztebe, Irurita, eta Goizueta.

► **Apirilaren 16tik 22ra** Igantzi, Sunbilla, Elizondo (Lezaun), Leitza eta Goizueta.

## Liburuak



«Berlin Alexanderplatz»

Alfred Döblin

IBAIZABAL

Anton Garitanok euskaratu du liburu hau, berez Alfred Döblin idazle alemaniar ospetsuak 1929an plazaratutakoa. Joan den mendean Europa odolustu zuten bi mundu gerren artean girotua dago eleberria, garai hartan Alemaniako hiriburua zen Berlinen, hain zuzen. Behartsu baten istorioa kontatzen zaigu, igeltsero eta garraio langile izandakoa eta bere ibilera zoroarengatik gartzelan bukatu zue-

na. Irakurleak protagonista eza gutzen dugun momentuan gartzelatik atera berria da eta hortik aurrera zintzo jokatzeko asmoa du, benetan. Baina, diotenez, Infernua ere asmo onez beterik omen dago eta, Döblinek maisuki bezain gordin eta errukirik gabe erakusten digun auzunean hondamendira doan zibilizazio hrratan, ez zaio erraza gertatuko Franzi bere zina betetzea.



Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. **ttipi-ttapa** telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea **ttipi-ttapa** igorri faxez edo postaz.

## ETXE BIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

## GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

## LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko  
Iparraldetik 00-34-

# 948631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzu berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

## ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak

- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak

- 208. Bertzelakoak

## LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

## IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

## MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

## ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

## DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

## HARREMANAK

- 801. Agurrak

## ETXE BIZITZAK

### 101 SALDU

## ETXEBERRIA

### INMOBILIARIA

Etxeak, baserriak, pisuak, bordak, lur-eremuak... behar dira Donezteben laster irekiko den inmoiliaria berriarentzat.

Karrika Nagusia, 7 •  
Doneztebe

**IGANTZI.** Pisu salgai, 3 logela, jangela, sukaldea eta komuna. ☎ 687 950 373.

**BERA.** Pisu, apartamentua eta bajera salgai. ☎ 948 630 098.

**IGANTZI.** Pisu, garajea

## ETXE BIZITZAK

### 102 EROSI

## ADOS

- Eskiera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajerak etab. erosi nahi dira.

☎ 948 451 841  
607 978 656

eta sotoa salgai. ☎ 948 637 845 (1etatik 3etara).

**LESAKA.** Antoiu karrikan 85 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. ☎ 948 637 333 (eguerdian eta 19etatik aitzinera).

**LEITZA.** Pisu mobleztatua salgai. ☎ 948 510 169.

## ETXE BIZITZAK

### 103 ERRENTAN EMAN

**BERA.** Eztegara karrikan pisu mobleztatua errentan emateko. ☎ 948 630 270 (goiz edo arratsetan).

**BERA.** Pisu mobleztatua errentan emateko Kanttonberri karrikan. ☎ 948 630 387.

## ETXE BIZITZAK

### 104 ERRENTAN HARTU

**LESAKA.** Pisu edo baserria errentan hartuko nuke. ☎ 948 637 947.

**BERA.** Etxea errentan hartu nahiko nuke uztaila eta abuztuan. ☎ 948 256 359.

**BERA.** Pisu merkea erosi edo errentan hartuko nuke. ☎ 652 708 901.

**IRUÑEA.** Logela errentan emanen nioke neska bati. ☎ 948 631 223.

## ETXE BIZITZAK

### 105 ETXE KONPARTITUAK

**BERA.** Pertsona bat behar da pisua osatzeko. ☎ 686



023 566 (gaueko 9etatik 10etara).

## GARAJEAK/LOKALAK

### 109 ERRENTAN EMAN

**BERA.** Burga auzoan (Telefonikako etxeetan) garajea errentan emateko. ☎ 948 631 033 (arratseko 8etatik 10etara).

**SARA.** 800 m<sup>2</sup>ko gordeleku errentan emateko. Nahi diren m<sup>2</sup>ak alokatzen ahal dira, 400 pta/16 lib. m<sup>2</sup>a. ☎ 00 33 559 54 28 06.

**ENEAGRAMA**ri (buruzagutza) eta **PNL**ri (aldaketak eta helburuak) buruzko bi **IKASTARO** Aste Santuan Etxalarko Saroi Berri Aterpean.

☎ 948 387 089

Bortzirietako enpresa batek **informatikaria** behar du, beharrezkoa Unix eza-gutu eta cobol DB-2 programatzen jakitea. ☎ 619 829 289.

Bortzirietako enpresa batek **persona bat** behar du kontabilitatea eramateko.

## KULTURKARI

### Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletokak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean egiten dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

☎ 948 63 11 88

## ADOS

### SUNBILLA: 26 etxe elkar atxikiak

Babes Ofizialeko 12 etxebizitza  
90 m<sup>2</sup> + 40 m<sup>2</sup> garaje + lur zatia (aukeran)

14 etxebizitza modalitate librean  
106 m<sup>2</sup> + 50 m<sup>2</sup> garaje + lur zatia



Hasiak gara erreserbak egiten.

Argibideak:  
☎ 948 451 841  
607 978 656

☎ 619 829 289.

Eraikuntzan lan egiteko **lan-gilea** behar da Bortziriak-Malerrekan. Ongi ordaindua. ☎ 619 469 784.

**Aerobic irakaslea** behar da Doneztebeko kiroldegian aritzeko, astelehen, asteazken eta ortziral arratsaldeetan. ☎ 649 014 031 (Leire) edo 646 242 687 (Mikel).

Bortzirietan adineko bikote bat zaintzeko **emakumea** behar da. ☎ 696 327 071.

**Pertsona bat** behar da ostatuko barran lan egiteko. ☎ 948 631 271.

**Zerbitzari bat** eta **parrilan aritzeko pertsona bat** behar dira Berako jatetxe batean asteburuetarako. ☎ 948 625 472.

**LANA**  
**302 ESKARIAK**

38 urteko **emakume batek** haurrak edo adinekoak zaindu edo etxeak garbi-

tzen lan eginen luke Bortzirietan. Autoa badut. Informeeekin. ☎ 948 625 425.

**Esperientziadun zerbitzaria** eskaintzen da udako bestatan ostatuan lan egiteko. ☎ 948 615 054.

**MOTORRA**  
**501 SALEROSKETAK**

**Lada-Niva** salgai. NA-W matrikuladuna. 44.000 km. ☎ 609 445 769.

**Nissan Trade** kamioneta salgai. NA-AB, kilometro guti. Egoera onean. ☎ 948 450 321.

**Honda Scooter** motoa salgai. Matrikulatua. ☎ 639 012 085.

**Yamaha Virago** 250 salgai, NA-AV. ☎ 948 637 786.

**Suzuki Santana** luzea salgai. ☎ 948 630 342.

**MOTORRA**  
**502 TAILERRAK**

**MENDAUR MOTOR**  
☎ 948 450333 • DONEZTEBE  
**Bigarren eskuko kotxeak:**  
Opel Astra, Nissan Patrol, Golf G 60, Ssangyong Muso TDI 5 ate, Terrano haize egokitua.  
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

**ANIMALIAK**  
**601 OPARI EMATEKO**

**Bi artzain zakur opari emateko**, 7 hilabete eta urte batekoa. ☎ 629 324 681.

**10 ardiren deretxoak** salgai. ☎ 948 637 490.

**Xexenkoak** salgai. Urte bat eta bi urte bitartekoak. Kalidade onekoak. ☎ 666 914 359.

**ANIMALIAK**  
**602 SALEROSKETAK**

**Txekorrak** salgai.

# 2001eko telefono gida prestatzen ari gara

Zure datuak zuzentzeko edo publizitatea kontratatzeko, deitu **948 63 11 88** telefonora



**BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNIDADEA**

**2000ko kontuen hasierako onspena**  
**2001eko aurrekontuaren hasierako onspena**  
**2001eko plantila organikoa**

Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak 2001eko otsailaren 12an egindako bileran 2000ko kontuak hasiera batez onetsi zituen. Halaber, 2001eko martxoaren 19an egindako bileran 2001eko aurrekontua eta exekuzio oinarriak eta 2001eko plantila organikoa onetsi zituen.

Espedienteak jendaurrean egonen dira 15 egunez, interesatuek aztertu eta egoki juzkatzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten.

Arantzan, bi mila eta bateko martxoaren hogeita bederatzian. Mankomunidadeko lehendakaria. Jose Ramon Amoros Oskoz

Arantzan, 2001eko martxoaren 29an

Bortzirietako Euskara Mankomunidadeko lehendakaria

J. Ramon Amoros Oskoz

**BERAko UDALA**  
AYUNTAMIENTO DE BERA

**UDAL PILOTALEKUA**  
**MOLDATZEKO LANAK**

- **Kontratuaren xedea:** Udal pilotalekua moldatzeko obrak.
- **Esleipen modua:** Pentsan iragarritako prozedura negoziatua.
- **Kontrata aurrekontua:** 10.912.448 Pta. / 65.585,13 euro (BEZ barne).
- **Proposamenak aurkeztea:** Iragarki hau egunkaritan argitara eman eta ondoko 15. egun naturala arte. Orduak: 9:00etatik 13:00etara. Azken eguna larunbata suertatzen bada, astelehenaraino luzatuko da.
- **Proposamen ekonomikoak jendaurrean irekitzea:** Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta ondoko 5. lanegunean. Egun hau larunbata suertatzen bada, hurrengo astelehenean irekiko dira. Ordua: 14:30.
- **Proiektua, baldintza tekniko eta klausula administratiboan** plegua eta gainerako baldintzak interesatuen eskura udal bulegoetan izanen dira.

Bera, 2001.03.26  
ALKATEA  
Josu Goia Etxeberria



# URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratzeko, bidali sobrea zure helbidearekin.

## OHARRA:

Argazki bakoitzarekin batera 40 Ptako 13 seilu igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira TTPI-TTAPA TELEBISTAN eta aldizkarian agertuko. Argazkia itzultzeko sobre bat eta helbidea ere bidali.



**Ibai Blanco Perez** beratarrak 7 urte bete ditu martxoaren 30ean. Zorionak guraso, Javi, Urtzi eta lagunen partetik.



**Maialen Garciaenak** 2 urte beteko ditu martxoaren 23an. Zorionak bere Leitzako familia eta gurasoen partetik.



**Maria Yanci** igantziarrak 3 urte bete ditu martxoaren 19an. Zorionak eta muxu handi bat zuretzat. Igantziko familiaren partetik.



**Juan Mari Larretxea** arantzarrak urteak bete ditu martxoaren 23an. Zorionak Jon, Maite, Sagrario eta familiaren partetik.



**Donato Lizardi** arantzarrak urteak beteko ditu apirilaren 29an. Eta txanpaina eta tartara gonbidatzen duzun. Zorionak Mononito.



**Maite Larretxea** arantzarrak 8 urte bete ditu martxoaren 22an. Zorionak aita, ama, Jon eta bere familiaren partetik.



**Beñat Leitza Garrido** doneztebarrak 7 urte bete ditu apirilaren 2an. Zorionak bere familiaren partetik.




**Manuel Ignacio Echave Ladera** elizondarrak 42 urte bete ditu martxoaren 26an. Zorionak Lourdes, Jose M<sup>a</sup>, Jaione eta Joneren partetik.



**Igor Gurrutxaga Errandonea** lesakarrak 10 urte bete ditu martxoaren 23an. Aunitz urtez familiaren partetik.



**Janire Martin Goia** beratarrak urtea beteko du maiatzaren 26an. Zorionak amaxi Pili eta Berako familiaren partetik. Muxu handi bat.



**Ibai Gallardon Altugarai** etxalartarrak 8 urte beteko ditu apirilaren 6an. Aunitz urtez familiaren partetik.



**Denis Leiza Pereira** doneztebarrak 7 urte beteko ditu apirilaren 18an. Zorionak aita, anaia, izeba eta amaxiren partetik.



**Joseba Pika-bea Mitxelena** beratarrak 4 urte bete ditu martxoaren 31n. Zorionak Eider, atta eta amaren partetik.



**Miren Lasaga Goienetxe** etxalartarrak 6 urte eginen ditu apirilaren 11n. Zorionak Mirentxu! Joseba eta Aritzen partetik.



**Virginia Goienetxe Gonzalez** elizondarrak urtea bete du apirilaren 3an. Zorionak eta muxu bat guraso eta amaxiren partetik.



**Ivan Gonzalez Neol** elizondarrak 5 urte beteko ditu apirilaren 25ean. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.



**Ugaitz Larralde Ibarra** beratarrak 2 urte bete ditu apirilaren 4an. Zorionak eta bi muxu haundi etxekoan partetik.



**Joseba Pika-bea Mitxelena** beratarrak 4 urte beteko ditu martxoaren 31n. Zorionak eta mila muxu Estazioko familiaren partetik.



**Olaia Loiarte Etxekolonea** zubietarrak 5 urte beteko ditu apirilaren 30ean. Zorionak eta muxu handi bat Zubietako familiaren partetik.



**Olatz Etxepare Elrío** lesakarrak 2 urte bete ditu apirilaren 3an. Zorionak neskatila! eta muxuak familiaren partetik.



**Onofre eta Miguel Angel** gazteluarrek martxoaren 30ean eta apirilaren 7an urteak beteko dituzte. Afariaren esperoan gaude. Zorionak!



**Ugaitz Larralde Ibarra** apirilaren 4an 2 urte egin ditu. Zorionak bere lehengusuen partetik.



**Nekane Iruretagoiena** 8 urte beteko ditu apirilaren 3an. Zorionak guraso eta Inakiren partetik.



**Xabier eta Amaia Lasaga Barroso** lesakarek apirilaren 10ean beteko dute lehen urtea. Zorionak ama eta aitaren partetik eta Lesaka eta Soriako familiaren partetik.



**Rosa Solano eta Beñat Erkizia** beratarrek urteak beteko dituzte apirilaren 5 eta 27an. Zorionak Berako familiaren partetik, eta txanpainera gonbidatu!



Berako **Beñat** eta **Lukenek** apirilaren 27an 3 urte eta apirilaren 6an urtea beteko dute. Zorionak Berako familiaren partetik. Aupa bitxitos!



**Luken eta Luciano**k urteak beteko dituzte apirilaren 6an eta 3an. Zorionak bikote, egun ona pasa dezazuela, eta tartara gonbidatu.



**Eneko Ariztia** dantxarinearrek 7 urte beteko ditu apirilaren 14an. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.



**Jone Jauregi Arotzarena** amaiurarrak 10 urte beteko ditu apirilaren 9an. Zorionak eta muxuak familiaren partetik. Aupa sorgintxo!



**Jon Matzizior Mitxelena** 5 urte beteko ditu apirilaren 7an. Aunitz urtez Bera eta Arantzako familiaren partetik.



**Eneritz eta Izaskun Rekarte Bengoetxea** beratarrek 9 eta 4 urte beteko dituzte apirilaren 8 eta 16an. Zorionak eta muxu handi bat eta amaren partetik.



**Itziar Mitxelena Gamio** arantzarrak 10 urte beteko ditu apirilaren 16an. Zorionak etxekoan partetik. Ongi pasa.



**Itziar Goienetxe Agirre** elizondarrak 10 urte beteko ditu martxoaren 31n. Zorionak familiaren partetik.

Partikularrendako proposak. Kanalean 200-250 kilo artekoak. ☎ 656 740 521 edo 678 469 691.

Yorkshire ertaina eta fox-terrier zakurkumeak salgai. ☎ 679 892 096 (arratsaldeko 6etatik aitzinera deitu).

## DENETARIK

### 702 SALEROSKETAK

**Banabar habiak** (ilar makilak) salgai, ezpelezkoak. ☎ 948 580228 (Elizondon).

**Aretxe haragiarekin** bete zure izozkailua. Momentu honetan arras

## AUKERAKO A



EZINDUENDAKO GARABIA SALGAI Egoera onean. Prezio arras interesgarria. ☎ 943523077

prezio onean dago. ☎ 606 586 603.

## DENETARIK

### 801 AGURRAK

**LODITASUNA** EDAN ETA ARINDU!

Zure pisua kontrolatua gustoko janak baxtertu gabe ☎ 948 13 11 36

Zorionak Kote eta Igorreri. Afariaren zain nago. A.A.

## KILOAK SOBERAN DITUZU? DIRU SARRERA EXTRA BEHAR DUZU?

Elkarrekin lan egin dezagun, ordu batzuz edo lanaldi osoan. Nazioarteko konpainia.

☎ 943 635 173 (Mikel) ☎ 948 452048



# MUEBLES METS

**Sarrera BERAtik da**

*Alkaiagako industrialdean*

*Sastrin karrika, 3.2 - 3.4*

**31789 LESAKA**

*Tfnoa. 948 630 537*

*Fax. 948 631 443*

*4.000 m<sup>2</sup>ko  
erakusketa  
mobleak ikusteko  
Larunbat arratsaldetan irekia*



**Sukaldeak**

**Egongelak**

**Logelak**

**Bainugelak**







# ttipi-ttapa

telebista

## BIDEO PRODUKZIOAK

### Promozio bideoak

Irudi on batek, dena erraten duelako eta irudi batek mila hitz baino gehiago balio duelako, bideoa da, gaur egun, zuk behar duzun erakusleihoa.



### Bideo industrialak

Zure enpresaren lana, jarduera eta instalazioak erakustera emateko, euskarri ezinhobea prestatuko dizugu.

### Bideoteka zerbitzua

Zure elkarte edo erakundeak antolatzen dituen ekitaldi guztiak bideoan gorde itzazu. Aldiro kopiak eskatu beharrean, kontratatu zerbitzu hau.



### Enkarguzko grabaketak

Edozein ikuskizun, zure gustora grabatua. Antzerkia, kontzertuak, dantza, bestak, bertsoak, kirola, hitzaldiak, ospakizunak ...



## ESKATU AURREKONTUAK

**kulturkari**

herriko etxeko plaza 1  
31780 BERA (Nafarroa)

tfnoa: 948 631188

fax: 948 631291

[kulturkari@euskalnet.net](mailto:kulturkari@euskalnet.net)